

**Euskaltzaindiaren
2007ko
Oroitidazkia**

Bilbo, 2008ko maiatzaren 2a

AURKIBIDEA

I. Erakundearen jarduerak	4
I.1. Akademiaren jarduerak	4
I.2. Batzar bereziak.....	8
I.3. Ageriko bilkurak	12
I.4. Kanpoko jarduerak	15
I.5. Heriotzak.....	16
I.6. Hilberri txostenak.....	16
I.7. Izendapenak eta ordezkapenak.....	17
II. Akademia-jarduera	22
II.1. Hiztegegintza.....	23
II.1.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia	23
II.1.2. Hiztegi Batua	23
II.1.3. Hiztegi Batua (2.itzulia).....	25
II.2. Gramatika	26
II.3. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa	28
II.4. Onomastika	30
II.5. Exonomastika.....	32
II.6. Literatura.....	34
II.6.1. Herri Literatura	34
II.6.2. Literatura Ikerketa	35
II.6.3. Sariketak	38
II.7. <i>Jagon</i> saila	41
II.7.1. Corpus alorreko lanak	41
II.7.2. Sustapen alorreko lanak	43
III. Erakunde zerbitzuak	46
III.1. Egoitza eta ordezkaritza	46
III.2. Azkue Biblioteka.....	57
III.3. Argitalpenak	60
IV. Herri Administrazio eta erakundeak	64
IV.1. Eusko Jaurlaritza eta hiru diputazioak	64
IV.2. Nafarroako Gobernua	65
IV.3. Estatu Administrazioa	66
IV.4. Iparraldeko Herri Agintea	67
IV.5. Udalak	67

IV.6. Unibertsitateak	69
IV.7. Euskaltel	70
IV.8. EiTB	70
IV.9. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	71
IV.10. Topagunea	71
IV.11. FEVE	71
IV.12. Bizkaia Irratia	71
IV.13. Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT)	71
IV.14. Labayru Euskal Kultur Erakundea	72
IV.15. Elhuyar Fundazioa.....	72
V. Euskaltzaindiaren organigrama.....	73
V.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak	74
V.2. Hitzarmenak.....	76
V.3. Batzordeen zerrenda	77
V.4. Helbideak / Aurkitegia.....	82

I. AKADEMIAREN JARDUERAK

I.1. AKADEMIAREN JARDUERAK

2007ko ekintza nagusiak

2007. urtean zehar Euskaltzaindiak honako osoko bilkurak egin ditu:

Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urtarrila	26 (otsailaren 2ra aldatua)	Donostia	- Batzar arrunta
Otsaila	23	Bilbo	- Batzar arrunta - Ageriko batzarra: hilberri-txostenak
Martxoa	17 30	Asteasu Donostia	- Bernardo Atxagaren sarrera-hitzaldia - Batzar arrunta
Apirila	19 20	Nafarroa	- Batzar arrunta - XV. Barne Jardunaldiak
Maiatza	31 + ekainak 1 ekainak 2	Donostia	- Batzar arrunta - Mikel Zalbideren sarrera-hitzaldia
Ekaina	29	Donostia	- Batzar arrunta
Uztaila	20	Bilbo	- Batzar arrunta
Iraila	28	Bilbo	- Batzar arrunta
Urria	26	Donostia	- Batzar arrunta - Andoni Sagarnaren sarrera-hitzaldia
Azaroa	23 30	Bilbo	- XI. Jagon Jardunaldiak - Batzar arrunta
Abendua	20 21	Senpere	- Gratien Adema "Zaldubi"ren mendeurrena - Batzar arrunta

Euskaltzain oso berriak

- Martxoaren 30ean, Donostian egin den osoko batzarrean, 25. aulkia betetzeko bozketa egin du Euskaltzaindiak. Aurelia Arkotxa euskaltzain oso izendatua izan da, Euskaltzaindiaren Arautegiak agintzen duen gehiengo osoa lortu ostean.

- Ekainaren 1ean, Bilbon egin den osoko batzarrean, 27. eta 28. dominetarako hurrenez hurren izendatuak izan dira Sagrario Aleman eta Joseba Lakarra.

- Azaroaren 30ean, Bilbon egin den osoko batzarrean, 29. eta 30. aulkiak betetzeko bozketak egin ditu Euskaltzaindiak. Joan Mari Torrealdai eta Miren Lourdes Oñederra euskaltzain oso izendatuak izan dira.

Sariak emateko proposamenak

Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutzak 2007ko *Humanitate* sariaren deialdia kaleratu dute eta Euskaltzaindiari aukera eskaini zaio hautagaia aurkezteko. Martxoaren 30ean egin den osoko batzarrean sari horretarako Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina proposatzea erabaki da.

***Ez dok amairu*-ren erakusketa**

Martxoaren 28tik apirilaren 27ra bitartean, Euskaltzaindiaren egoitzan, *Ez dok amairu*-ren erakusketa egin da. Erakusketa horrek *Ez dok amairu*-ren aurrekariak, sorrera, garapena eta amaiera azaltzen ditu; besteak beste, taldearen inguruko dokumentu idatziak ikusi ahal izn dira: argazkiak, gutunak eta kartelak.

Irekiera ofizialean, apirilaren 27an, honako hauek hitz egin dute: Andres Urrutia euskaltzainburuak, Luis Mari Ormaetxea Usurbilgo alkateak eta Joxemari Iriondo kazetari eta *Ez dok amairu* mugimenduaren kide izan zenak.



Egoitzan, 2007-III-27an; ezkerretik eskuinera: Luis Mari Ormaetxea, Andres Urrutia eta Jose Mari Iriondo.

Ordezkarien izendatzea

XV. Barne Jardunaldiei segida emanez, ekaineko osoko bilkuran ordezkariak izendatu dira: Gipuzkoako ordezkaria, Ana Toledo; Arabako ordezkaria, Henrike Knörr eta ordezkariordea, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu; Nafarroako ordezkaria, Andres Iñigo; Iparraldeko ordezkaria, Beñat Oihartzabal eta, Baionako bulegoaren arduraduna, Piarres Xarritton.

Kanpoko erakundeetan

- Donostiako Udalak Euskararen Aholku Batzordea sortu berri du eta Euskaltzaindiari erakunde horretarako ordezkaria izendatzea eskatu dio. Gipuzkoako ordezkaria den Ana Toledo izendatu da batzorde horretan Akademiaren ordezkari izan dadin.
- Espainiako Gobernu Zentraleko Consejo Superior Geográfico delako batzordeak Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkaria eta Onomastika Zerbitzuaren arduraduna izendatu du, batzordearen esanetara arituko den lantaldeko kide izan dadin. Euskaltzaindiak onartu egin du erakunde horren proposamena.
- Nafar Gobernuak, eraturiko Euskararen Nafar Kontseilurako Euskaltzaindiaren ordezkari bat izendatzea eskatu du, eta Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria izendatzea erabaki da.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak zenbait ordezkari izendatzeko eskatu dio Euskaltzaindiari eta Euskaltzaindiak irailaren 28ko batzarrean, honako hauek izendatu ditu:
 - Euskararen Aholku Batzorderako ordezkaria Euskaltzainburua izango da eta, ordezkoa, Idazkaria.
 - Toponimia Batzorde-atal Berezirako ordezkaria, Mikel Gorrotxategi.
 - Terminologiako Batzorde-atal Berezirako ordezkaria, Andoni Sagarna.

Euskararen nazioarteko kodea

Hizkuntzen nazioarteko kode estandarren zerrendan euskarak hiru laburdura edo kode dituela ikusirik, Euskaltzaindiak bere iritzia helarazi dio gai horren arduraduen ISO (International Organization for Standardization) elkarteari. Hor ageri diren kode ezberdinak hizkuntza berari -euskarari- dagozkionez, aurrerantzean kode bakarra -eus- jar dadin eskatu dio Euskaltzaindiak. ISO elkarteak onartu egin du eskaria.

Arana Martixaren liburutegia Euskaltzaindiarentzat

Jose Antonio Arana Martixa euskaltzain emerituak bere liburutegi pertsonalaren dohaintza egin dio Euskaltzaindiari. Irailaren 28an, Arana Martixak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak hitzarmena sinatu dute Akademiaren egoitzan.

e-AEB: Arau-erabakien banaketa elektronikoa zerbitzua

Urriaren 26an, Euskaltzaindiak arau-erabakiak libre eskuratzeko sistema aurkeztu du Donostian, Miramongo Parke Teknologikoan. Sistema horren izena e-AEB da, hots, arau-erabakien banaketa elektronikoa.



Aurrerantzean, Arauak, Hiztegi Batua, Izendegiak edota gomendioak edonoren ordenagailura jaisteko aukera izango da. Erabiltzaile aurreratuentzat, zerrenden euskarri diren XML fitxategiak erabilgarri jarri dira. Doako harpidetza sistema ere estreinatu da.

Nafarroako Gobernuburua agurtu

Euskaltzaindiko Zuzendaritzak, urriaren 24an, Nafarroako Gobernu berriari bisita egin dio. Miguel Sanz lehendakaria eta Carlos Pérez Nieves Hezkuntza kontseilaria agurtu ditu.

Euskaltzaindiak Leizarragaren *Testamentu Berria* (1571) erosi

Euskaltzaindiak Joanes Leizarragaren *Testamentu Berria* erosi du. Hauxe da testu klasiko horren euskarazko lehen bertsioa eta 1571n argitaratu zen. Liburu hori euskaraz argitaratutako bigarren liburua da.

10/82 Oinarrizko Legea ondu zutenei diploma

Azaroaren 23an egoitzan egin diren XI. Jagon Jardunaldien barnean, Euskararen erabilera normalizatzeko 10/82 Oinarrizko Legearen 25. urteurrena ospatzeko, diploma eman zaie lege hori ondu zutenei. Andres Urrutia euskaltzainburuak, Juan Mari Atutxa Sabino Arana Fundazioko lehendakariak eta Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak banatu dituzte diploma horiek. Diplomak hau dio: "Euskararen erabilera normalizatzeko 10/82 Oinarrizko Legeak 25 urte bete dituen honetan, lege hori ontzen aritu ziren andre-gizonak omendu nahi ditugu. Har ezazu diploma hau, egin zenuen lanaren aitortpen eta esker onez. Bilbon, 2007ko azaroaren 23an." Omendu hauei eman zaie diploma eskura: Inmaculada Boneta, Ramon Labaien, Jose Luis Lizundia eta Jose Antonio Maturana. Ekitaldira etortzerik izan ez duten Pedro Miguel Etxenike, Alberto Ansola, Alfredo Marco Tabar eta Jon Olaberria jaunei heleraziko zaie diploma. Azkenik, Joaquin Maria Aginaga, Santiago Griñó y Rabert eta Jose Antonio Zaldua zenduak ere gogoan izan dira. Omenduen izenean, esker oneko hitzak esan ditu Ramon Labaienek.



Egoitzan, 2007-XI-23an; ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Jose Antonio Maturana, Inmaculada Boneta eta Ramon Labaien.

Txomin Peillen euskaltzain emeritu

Azaroaren 30eko osoko batzarrean, Euskaltzaindiak euskaltzain emeritu izendatu du Txomin Peillen. Emeritu izateko, 75 urte beteak izan behar dituzte euskaltzain osoek.

I.2. BILKURA BEREZIAK

I.2.1. XV. BARNE JARDUNALDIAK

Euskaltzaindiak bi urtean behin Barne Jardunaldiak egin ohi ditu, egindakoaz eta etorkizunaz gogoeta egiteko. Lehen barne jardunaldiak Foruan egin ziren 1979an, eta aurtengoak, XV.ak, Etxalarren, bertako Kultura Etxean, 2007ko apirilaren 20 eta 21ean honako egitaruari jarraituz:



Etxalarren, Kultura Etxean, 2007-IV-21ean; ezkerretik eskuinera: Ana Toledo, Joseba Intxausti, Mikel Zalbide eta Emile Larre.

Apirilaren 20a, ostirala

- a) Euskaltzainburuaren sarrera txostena
- b) Aribideko egitasmoei buruzko errendapenak eta 2007-2008rako jarraipena
 - Ibon Sarasola: Euskaltzaindiaren hiztegia
 - Pello Salaburu: EGO (Euskal Gramatika Orokorra)
 - Andres Iñigo: ECO (Euskal Corpus Onomastikoa)
- c) Henrike Knörr eta Jose Luis Lizundia: Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra

Apirilaren 21a, larunbata

Egitasmo berrien aurkezpenak:

- Andoni Sagarna: “Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak eta Euskaltzaindiaren edukiak”
- Joseba Intxausti: “*Joanes Etxeberri* Egitasmoa (2007-2008): Euskararen Historia Sozialerako (EHS) Proiektua”
- Adolfo Arejita: “Ahozkotasunaren ondarea”
- Xabier Kintana: “Zientzia eta teknologia Hiztegi Batuan”

Batetik, Euskaltzaindiaren Hiztegia, Euskal Gramatika Orokorra (EGO) eta Euskal Corpus Onomastikoa (ECO), hiru egitasmo nagusi nola gauzatzen ari diren ikusi da eta, bestetik, egitasmo berriei, atea ireki zaie. Honako hauek dira:

- *Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak eta Euskaltzaindiaren edukiak (IKT)*. Proiektu honen bidez, Akademiak arauak emateko behar dituen testu-corpusak antolatzeke eta informatikaren baliabide berrieekin emaitza horiek gizartaratzeko behar bezalako tresnak gauzatuko dira.
- *Joanes Etxeberri Egitasmoa: Euskararen historia sozialerako Proiektua*. Hizkuntzaren historia soziala ikertu eta argitaratzeko asmoz, munduan zehar arlo horretan ikuspegi ezberdinekin egindako lanez baliatuko da, horretarako metodologia propioa sortuz eta berariazko bibliografia landuz.

I.2.2. SARRERA EKITALDIAK

Jose Irazu “Bernardo Atxaga”ren sarrera-ekitaldia

Martxoaren 17an egin da Jose Irazu Garmendia “Bernardo Atxaga” euskaltzainaren sarrera ekitaldia, Asteasuko Usarrabi kiroldgian. Juan Mari Lekuona zenaren lekua bete du Irazuk Euskaltzaindian eta zortzigarren zenbakia duen domina darama.



Asteasuko Usarrabi kiroldgian, 2007-III-17an; Jose Irazu “Bernardo Atxaga” sarrera-hitzaldia irakurtzen.

Sarrera-ekitaldiaren egitaraua betez, Iñaki Amenabar Asteasuko alkatearen ongietorria eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurra entzun dituzte bertaratutakoek. Jarraian, Juanjo Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren nondik norakoa azaldu du eta ondoren Jose Luis Lizundia eta Ana Toledo euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Jose Irazu, *Antzarak, zenbakiak eta letrak* izeneko sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Xabier Kintana euskaltzainak erantzun dio, *Ekintzailearen laudorioa* izeneko hitzaldiarekin.

Hitzaldia amaitzean, Euskaltzainburuak euskaltzain oso berriari dagozkion agiria eta diploma eman dizkio. Gero, banan-banan, euskaltzain guztiek zoriondu dute. Amaitzeko, Pello Errota herri ikastetxeko haur, guraso eta Asteasuko herritarren koruak bi abesti eskaini dituzte: *Hegoak ebaki banizkion* eta *Eskola txikietako festarako abestia*, Bernardo Atxagak berak idatzia. Bestalde, *Oinkari* dantza taldekoek *Aurreksua* eskaini diote euskaltzain berriari eta Asteasuko bertso eskolako Haritz Mujikak bertso batzuk bota ditu. Mila Iztueta irakasleak, Mirari Irurtzun musikariak lagunduta, *Soinujolearen semea* liburuaren pasarte bat irakurri du. Asteasuko herriaren izenean, Iñaki Amenabar alkateak euskal makila eman dio.

Mikel Zalbideren sarrera-ekitaldia

Ekainaren 2an egin da Mikel Zalbide euskaltzainaren sarrera ekitaldia, Gipuzkoako Foru Aldundian. Patxi Altuna zenaren lekua bete du Zalbidek Euskaltzaindian eta hamazazpigarren zenbakia duen domina darama.



Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2007-VI-2an; Mikel Zalbide sarrera-hitzaldia irakurtzen.

Ekitaldiaren hasieran ezpata-dantza dantzatu dute Elgoibarko *Haritz*, Añorgako *Arkaitz*, Debako *Gure-Kai* eta Eibarko *Kezka* dantza taldeek. Musika, aldiz, Eibarko *Usartza* txistulari taldeak jarri du.

Sarrera-ekitaldiaren egitaraua betez, Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako foru diputatu nagusiaren ongietorriaren eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren

agurraren ondoren, Juanjo Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren nondik norakoa azaldu du eta, ondoren, Ana Toledo eta Patxi Salaberri euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Mikel Zalbide, *Pedagogoia Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak Iturriagaren argitan* izeneko sarrera-hitzaldia irakurtzera. Xabier Kintanak irakurri du Henrike Knörr euskaltzainak prestatuturiko *Zerbitzari eta eragile zabala* izeneko erantzuna.

Hitzaldia amaitzean, Euskaltzainburuak euskaltzain oso berriari dagozkion agiria eta diploma eman dizkio eta, gero, banan-banan, euskaltzain guztiek zoriondu dute. Amaitzeko, Joxe Joan Gonzalez Txabarrik Gipuzkoako Diputazioan dagoen bidriera daraman koadroa eta Gipuzkoako domina oparitu dizkio Mikel Zalbideri. Ekitaldia *Agur Jaunak* kantarekin bukatu da.

Andoni Sagarnaren sarrera-ekitaldia

Urriaren 26an egin da Andoni Sagarna euskaltzainaren sarrera hitzaldia, Donostian, Miramongo Parke Teknologikoan. Sagarnak hogeita seigarren zenbakia duen domina darama.



Donostian, Miramongo Parke Teknologikoan, 2007-X-26an; ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia eta Andoni Sagarna.

Sarrera-ekitaldiaren egitaraua betez, Andres Urrutia euskaltzainburuak agur hitzak esan dizkie bertaratutakoei. Jarraian, Xabier Kintana idazkariak ekitaldiaren nondik norakoa azaldu du eta, ondoren, Patxi Salaberri eta Mikel Zalbide euskaltzainek lagundu dute batzar aretora sartzen eta *Euskara eta Informazioaren Teknologiak. Egungo egoeratik etorkizunera begira* izeneko sarrera-hitzaldia irakurri du. Erantzuna Jean-Louis Davant euskaltzainak eman dio, *Aizkolariak eta zizelkariak* hitzaldiarekin.

Hitzaldiak amaitzean, Euskaltzainburuak euskaltzain oso berriari dagozkion agiria eta diploma eman dizkio eta gero, banan-banan, euskaltzain guztiek zoriondu dute. Ekitaldia Markel Olano Ahaldu Nagusiaren amaierako hitzekin bukatu da. Ekitaldia zuzenean eskaini da internet bidez, Euskaltzaindiaren webgunetik.

I.3. AGERIKO BILKURAK

Ageriko Bilkura Etxalarren

Apirilaren 21ean, Etxalarko Udalarekin batera, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Nafarroako herri horretako Kultur Etxean, bertako bi euskaltzain urgazleren omenez: Teodoro Arburua eta Etxalarko Eusebio. Horrezaz gain, Bortzirietako hizkera ere hizpide izan da.



Etxalarren, Kultura Etxean, 2007-IV-21ean; ezkerretik eskuinera: Patxi Iñigo, Patxiku Irisarri, Andres Urrutia eta Pello Apezetxea.

Teodoro Arburua eta Eusebio de Etxalar euskaltzale etxalartarren bizitzak jorratu ditu Pello Apezetxea ohorezko euskaltzainak bere mintzaldian. Biak Etxalarkoak, biak euskaltzain urgazle -Euskaltzaindia sortu zen urte berean izendatuak, 1919ko urriaren 26an-, biak euskaltzaleak, baina modu berean biak ia ezezagunak. Apezetxearen hitzetan Arburua euskaltzale sutsua izan zen eta elizkizun eta katekesiaz gain, kantu eta antzerki lanak ere euskaraz egin zituen eta, besteak beste, *Euskal-Esnalea*, *La Tradición navarra* edota *La voz de Navarra* agerkerietan idatzi zuen. Toponimia arloa ere landu zuen eta, 1915ean Iruñeko Udalak sari bat eman zion Etxalarko toponimiari buruz egindako ikerketarengatik. 1926an, Euskararen Adiskideak elkarteak ere saritu zuen, Nafarroako herri istorioez idatzitako lan batengatik.

Eusebi Etxalarkoa, -horixe baitzen euskaraz idazten zuenean erabiltzen zuen izena- 1874ko abenduan jaio zen. Hainbat arlo jorratu zituen eta euskarari lotutako bere lanen artean, hauek dira aipagarriak: *Voces Vascas en los Fueros de Navarra* - Nafarroako Foruen testuaren hitzak argitu eta zuzendu zituen, baita bere esanahia azaldu ere-, *Palabras vascas en monumentos romanos*, *Disertación sobre el análisis e interpretación de los nombres toponímicos vascos* (Altadilen *Geografía General del País Vasco* argitalpenean), *Asmakeria*.

Bortzirietako hizkera

Bortzirietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan izan da Patxi Iñigo euskaltzain urgazleak jorratu duen gaia. Adibide gisa, kasu zehatzak aipatu ditu Iñigok, berari Bortzirietako hizkeran nabarmenak iruditzen zaizkionak alegia, eta, horietatik zein ari diren gutika-gutika desagertzen, aldatzen eta zein diren indarrean dirautenak nabarmendu du.

Euskaltzaindia Vianan

Irailaren 21ean, Vianan, Kultura Etxean, ageriko bilkura egin du Akademiak, Nafarroa Oinez dela eta. Ekitaldiari hasiera Gregorio Galilea Vianako alkateak eman dio, eta ondoren Ventura Gonzalez Vianako Erentzun ikastolako lehendakariak eta Aritz Lizarraga ikastolako zuzendariak hitz egin dute.



Vianako Kultura Etxean, 2007-IX-21ean; ezkeretik eskuinera: Aritz Lizarraga, Andres Iñigo, Andres Urrutia, Gregorio Galilea, Ventura Gonzalez eta Mikel Gros y Lladós.

Ekitaldiaren muina Mikel Gros y Lladós-en *Recuperación del Euskera en Navarra* liburuaren aurkezpena izan da. Lana Euskaltzaindiaren Jagon bildumaren 4. liburua da eta Andres Iñigo, Jagon sailburu eta Nafarroako ordezkariak euskarak Nafarroan azkeneko hogeitaz urteetan, irakaskuntzaren bitartez batik bat, izan duen bilakaeraren erakusleia dela azaldu du. Egileak 2001eko erroldako datuekin 25 urtetik beherakoen azpi-sailkapena egin du, eta leku bakoitzean 15 urtetik beherakoen artean euskara dakitenen ehuneko kopurua egiaztatu.

Miquel Grosek azaldu bezala, liburuak xede bi ditu: batetik, Nafarroako Foru Erkidego osoan euskararen erretratua egitea eta, bestetik, euskal hizkuntzaren etorkizunari buruz hausnartzea.

Liburuaren aurkezpena amaitu ondoren, Vianako Erentzun ikastolako haurrek *Giltza daukagu* kanta abestu dute, 2007ko Nafarroa Oinez-ena. Andres Urrutia

euskaltzainburuak eman dio bukaera ekitaldiari. Gainera, Sustapen eta Onomastika batzordeek egin dute bilera bana udaletxean.

Gratien Adema "Zaldubi"ren omenez Senperen

Abenduaren 20an, Senpereko Elkartetxean ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak, Gratien Adema "Zaldubi"ren omenez.

Omenaldiari hasiera emateko, Euskaltzaleen Biltzarra erakundearekin batera, *Gratien Adema "Zaldubi" (1828-1907)* dioen brontzezko irudia, Edouard Solorzano eskultoreak egina, inauguratu da Senpereko eliza ondoan. Bertan ondoko hauek hitz egin dute: Christine Bessonart Senpereko auzapezak eta Piarres Aintziart Euskaltzaleen Biltzarreko buruak. Bukatzeko, *Zirikolatx* dantza taldeko dantzari batek aureskua dantzatu du eta Zaldubi ikastolako haurrek idazle omenduaren "Zazpi Euskualherriek" kanta abestu du.



Senpereko Elkartetxean, 2007-XII-20an; ezkerretik eskuinera: Christine Bessonart, Jean Haritschelhar eta Ana Toledo.

Ondoren, ageriko bilkuran, Mikel Zalbidek -Ana Toledok irakurria-, Patri Urkizuk, Xabier Altzibarrek eta Jean Haritschelharrek aurkeztu dituzte euren txostenak.

Hitzaldi guztiak entzun ostean, Henri Duhauk paratu duen *Gratien Adema, Zaldubi, saindu batzuen biziaz* liburua aurkeztu da. Lan hori Euskaltzaindiaren "Euskaltzainak" izeneko bildumaren 1. liburua da. "Euskaltzainak" bilduma Euskaltzaindiak sortu berri du eta bertan euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta euri buruzko azterketak argitaratuko ditu Akademiak.

I.4. KANPOKO JARDUERAK

Argantzunen, Araba Euskaraz -ekin bat eginez

Ekainaren 17an, Araba Euskaraz festa ospatu da Argantzunen. Hori dela eta, Euskaltzaindia Argantzunen izan da ekainaren 15ean, Onomastika eta Sustapen batzordeak hor bilduz. Bestalde, eguerdian, 2007ko Araba Euskaraz antolatu duen Argantzun Ikastola bisitatu dute euskaltzainek.

Vianan, Nafarroa Oinez festarekin bat eginez

Nafarroa Oinez festarekin bat egin du Euskaltzaindiak. Irailaren 21ean, Onomastika eta Sustapen batzordeak bertan bildu dira eta, Bestalde, eguerdian, Vianako *Erentzun* ikastola bisitatu dute bi batzordeetako kideek. Han, Aritz Lizarraga zuzendariak, zenbait irakaslek eta ikasle talde batek hartu dituzte euskaltzain eta batzordekideak.

EHUko Udako ikastaroetan

Aurten bete dira 50 urte Jose Luis Alvarez Enparanza "Txilladegi"k *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberria argitaratu zuela, eta Literatura Ikerketa batzordeak hitzaldi-sorta eman du, Euskal Herriko Unibertsitatearen 2007ko Udako Ikastaroen barnean, uztailaren 16, 17 eta 18an Donostian, Miramar Jauregian.

Bartzelonako III. Liburuaren Erakusketan

Aurreko urteetan bezala, aurten ere Euskaltzaindia, Institut d'Estudis Catalans eta Consello da Cultura Galega erakustoki berean izan dira, azaroaren 21etik 26ra arte egin den Bartzelonako "III. Liburuaren Erakusketa"n.

Onomastika batzordekideak Aragoien

Abenduaren 15 eta 16an, *A Estrela* Aragoiko hizkuntzazko ikerketa eta lanen elkarteak antolaturik, Isin herrian (Sabiñánigo/Samianigo) antolaturiko Toponimiazko eztabaidarako jardunaldietan parte hartu dute Jose Luis Lizundia eta Patxi Galé Onomastika batzordeko kideek. Euskal toponimoen arautze eta normalizatzeari ekiteko ohiko bideak aztertu eta deskribatu dituzte.

I.5. HERIOTZAK

Jose Manuel Lasarte euskaltzain urgazlea

Apirilaren 17an Jose Manuel Lasarte Mugiro euskaltzain urgazlea hil da, Iruñean. Etxarri Larraunen jaio zen Jose Manuel Lasarte, 1927ko ekainaren 20an. Iruñean apeztu zen, 1951n. Hainbat urte eman zituen Luzaiden, Berueten, Leitzan - horko Industria eta Nekazaritza eskolako zuzendaria izan zen- eta Uharte Arakilen. 1991n, Uharte Arakil utzi eta Iruñera joan zen. Azken urteotan, Seminarioko Apaizen Egoitzan bizi zen. Beste karguren artean, eremu euskalduneko lurralde-bikario izan zen, bi aldiz gainera. *Príncipe de Viana* aldizkarian, “Euskeraren Aldeko” sailean lan egin zuen. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen, 1964ko urtarrilaren 30ean.

Jesus Atxa ohorezko euskaltzaina

Urriaren 23an Jesus Atxa Agirre ohorezko euskaltzaina hil da, Iruñean, 87 urte zituela. 1960ean erabat murgildu zen euskal kultur eta ikastolen munduan. Bizkaiko ikastolen bultzatzaile sutsua izan zen Jesus Atxa. Gipuzkoako herri batzuetan ere lan bera egin zuen, eta lurralde horretako Ikastolen Elkarteak sortu aurretiko bileretan eta ekimenetan ere parte hartu zuen. Nafarroan ere ikastolen munduan sortzaile, bultzatzaile eta irakasle izana zen Jesus Atxa: 1970. urtean Iruñeko San Fermin ikastolako zuzendari izendatu zuten eta bertan jardun zuen jubilatzen arte. 1977an Nafarroako Ikastolen Elkarteko sorreran parte hartu zuen. 1990ean Nafarroako Ikastolen Historiarako Artxiboetako arduradun izendatu zuten. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren sorreran ere hartu zuen parte. Euskaltzaindiak 1967ko abuztuaren 25ean euskaltzain urgazle izendatu zuen eta, euskaltzain ohorezko, berriz, 1998ko apirilaren 24an.

I. 6. HILBERRI-TXOSTENAK

Otsailaren 23an, Bilbon, egoitzan, ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak. Bertan, omenezko hilberri-txosten hauek irakurri dira:



Egoitzan, 2007-II-23an; ezkerretik eskuinera: Jose Mari Velez de Mendizabal, Xabier Kintana, Andres Urrutia, Henrike Knörr eta Gorka Aulestia.

Federico Barrenengoa Arberas

Euskaltzain ohorezkoa (1916-2005). Omenezko txostena Henrike Knörrek egin du.

Gaizka Barandiaran Balantzategi

Euskaltzain urgazlea (1916-2006). Omenezko txostena Jose Mari Velez de Mendizabalek egin du.

Jose Maria Etxaburu Etxaburu “Kamiñazpi”

Euskaltzain urgazlea (1913 - 2006). Omenezko txostena Gorka Aulestiak egin du.

I. 7. IZENDAPENAK ETA ORDEZKAPENAK

Villasanteren Axularren hiztegia-ren berrargitalpenean

Irailaren 15ean, Luis Villasanteren *Axularren hiztegia*-ren berrargitalpenaren aurkezpena egin da Oñatin. Arantzazuko Frantziskotarrek eta Oñatiko Udalak antolatutako ekitaldi horretan Andres Urrutiak parte hartu du. Berarekin batera, hitzaurrea egin duen Jerardo Elortza, Paulo Agirrebaltzategi frantziskotarra eta Mikel Iturrospen Oñatiko Euskara batzordeko zinegotzia ere maiburuan izan dira.

Beste ordezkapen batzuk

- Urtarrilaren 17an, Thierry Frayssé Frantziako kontsulak eskaini duen harrera-ekitaldira Andres Urrutia euskaltzainburua joan da.
- Urtarrilaren 20an, Lekeitioko R. M. Azkue ikastolaren eraikin berriaren inauguraziora Andres Urrutia joan da.
- Urtarrilaren 24an, Bilbon, Ramon Rubial Fundazioak sari-banaketa egin du eta Andres Urrutia euskaltzainburua izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Urtarrilaren 25ean, Sondikan, *Aikor!* aldizkariaren 5. urteurrena ospatu da. Andres Urrutia joan da eta berak eman dio *Aikor!* saria Juan Luis Goikoetxeari.
- Urtarrilaren 27an, 2007ko Donostia Hiriko *Kutxa* sariak eman dira, eta Ana Toledo izan da.
- Urtarrilaren 28an, Bilboko Arriaga Antzokian, 2006ko Sabino Arana sariak eman dira eta Andres Urrutia eta Xabier Kintana joan dira.
- Otsailaren 7an, Izaskun Bilbao Eusko Legebiltzarreko buruak hitzaldia eman du Bilbon, Forum Europa-k antolatuta. Jose Luis Lizundia diruzaina joan da.
- Otsailaren 13an, Patxi López Alderdi Sozialistako idazkari nagusiak hitzaldia eman du Bilbon, Forum Europa-k antolatuta. Andres Urrutia joan da.
- Otsailaren 19an, Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuak hitzaldia eman du Bilbon, Forum Europa-k antolatuta. Xabier Kintana idazkaria joan da.
- Otsailaren 21ean, Artur Mas “Convergencia Democrática de Catalunya”ko idazkari nagusiak hitzaldia eman du Bilbon, Sabino Arana Fundazioak “Galizia,

- Euskadi, Katalunya: Estatu nazioanitza erronka” gaiaz antolatutako hitzaldi-sortaren barruan. Xabier Kintana joan da.
- Otsailaren 26an, Alfonso Alonso Gasteizko alkateak hitzaldia eman du Bilbon, Forum Europa-k antolatuta. Henrike Knörr Arabako ordezkaria joan da.
 - Otsailaren 27an, Bilboko Udalak Uriko Urrezko domina eman die zenbait pertsona eta elkarteri. Adolfo Arejita euskaltzaina joan da.
 - Martxoaren 7an, Anxo Quintana Galiziako Xuntako buruordea eta BNGko bozeramaileak hitzaldia eman du Bilbon, Sabino Arana Fundazioak “Galizia, Euskadi, Katalunya: Estatu nazioanitza erronka” gaiaz antolatu duen hitzaldi-sortaren barruan. Jose Luis Lizundia diruzaina joan da.
 - Martxoaren 7an, Donostiako Herri Irratian, Gazteen hizkerari buruzko grabaketa egin da, Eusko Ikaskuntzak bultzatuta. Euskaltzaindiaren izenean Joxe Ramon Zubimendi euskaltzain urgazle eta Corpus batzordeko idazkariak parte hartu du irratsaio horretan.
 - Martxoaren 15ean, Euskaltzaindiaren egoitzan egin den KORRIKA 15-en aurkezpenean Andres Urrutia, Xabier Kintana, Juan Jose Zearreta eta Pello Telleria izan dira.
 - Martxoaren 21ean, Josu Jon Imaz EAJren Euskadi Buru Batzarreko buruak hitzaldia eman du Bilbon, Sabino Arana Fundazioak “Galizia, Euskadi, Katalunya: Estatu nazioanitza erronka” gaiaz antolatu duen hitzaldi-sortaren barruan. Andres Urrutia euskaltzainburua joan da.
 - Martxoaren 21ean, Gipuzkoako Batzar Nagusietako egoitza berria inauguratu da Donostian (Miramonen). Beñat Oihartzabal eta Jose Luis Lizundia joan dira.
 - Martxoaren 22an, Jose Luis Bilbao Bizkaiko diputatu nagusiak hitzaldia eman du Bilbon, Forum Europa-k antolatuta. Xabier Kintana idazkaria joan da.
 - Martxoaren 26an, Javier Rojo Espainiako Senatuko buruak hitzaldia eman du Bilbon, Forum Europa-k antolatuta. Diruzaina eta idazkaria joan dira.
 - Martxoaren 27an, Kexaan, Ayala Kantzileraren heriotzaren VI. mendeurrena gogoratzeko egin den ekitaldian Henrike Knörr Arabako ordezkaria izan da.
 - Martxoaren 27an, Guggenheim Museoan egin den Anselm Kiefer erakusketaren inaugurazioan Xabier Kintana idazkaria izan da.
 - Martxoaren 29an, Nafarroako Gobernuan, *Baztan solasean. Ahozko tradizioaren bilduma* liburuaren aurkezpenean Andres Iñigo Jagon sailburua izan da.
 - Apirilaren 3an, Bizkaiko Foru Aldundiak *Bai Euskarari* saria ematea dela-eta antolatu duen ekitaldira Andres Urrutia eta Juan Jose Zearreta joan dira.
 - Apirilaren 3an, EiTBren Bilboko egoitza berriaren inaugurazioa egin da. Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia, Mikel Gorrotxategi eta Amaia Okariz izan dira.
 - Apirilaren 12an, Instituto Cervantes-ek Lyon-en duen etxeko liburutegiari *Gabriel Aresti* izena jarri dio. Jose Luis Lizundia diruzaina joan da Akademiaren izenean.
 - Apirilaren 25ean, Jose Mari Jimeno Jurioren *Navarra. Historia del euskera III. Pamplona y su Cuenca* izeneko liburuaren aurkezpenean egon da Andres Iñigo.
 - Apirilaren 26an, Gernikako Bonbardaketaren hirurogeita hamargarren urteurrena izan da eta Jose Luis Lizundia diruzaina joan da.
 - Apirilaren 28an, San Prudentzioren eta Estibalizko Andre Mariaren omenezko jaiak direla eta, Arabako Diputatu nagusiak eskaini duen harrera-ekitaldi ofizialera Andres Urrutia euskaltzainburua joan da.

- Maiatzaren 3an, Bilbon, Forum Europa-k antolatuta, Nuria López de Gereñu Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburuak eman duen hitzaldira Jose Luis Lizundia diruzaina joan da.
- Maiatzaren 3an, Zaldiko-Maldiko elkarteak izan da Andres Iñigo, "Larreko" saria nori emanen zaion erabaki den bileran.
- Maiatzaren 8an, Deustuko Unibertsitateak Honoris Causa izendatu du Mr. Porter jauna. Ana Toledo izan da.
- Maiatzaren 10ean, Durangoko Kurutziaga Ikastolaren inaugurazioa egin da eta Diruzaina izan da bertan.
- Maiatzaren 10ean, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzan, Manuel de Irujo Justizia Sariaren seigarren emanaldia izan da, eta Andres Urrutia euskaltzainburua joan da Akademiaren izenean.
- Maiatzaren 12an, Tafallan Euskararen Eguna inauguratu da eta Andres Urrutia euskaltzainburua joan da.
- Maiatzaren 13an, *Herri Urrats* egin da Senperen, eta Andres Urrutia euskaltzainburua izan da.
- Maiatzaren 17an, Euskadiko Liburu Ganberak eta Euskadiko Editoreen Elkarteak, Bilbon, "Argital Sariak" eman dituzte, eta Juanjo Zearreta kudeatzailea izan da Akademiaren izenean.
- Maiatzaren 20an, Sortzen Ikasbatuak Iruñean antolatutako Euskal Eskola Publikoaren aldeko 12. festan egon da Andres Iñigo.
- Maiatzaren 20an, Ibilaldia -Bizkaiko Ikastolen Jaialdia- egin da Balmasedan. Andres Urrutia euskaltzainburua joan da.
- Maiatzaren 30ean, Ramon Rubial IV. Ipuin Lehiaketaren sariak ematea egin da Euskalduna Jauregian, eta Adolfo Arejita euskaltzaina izan da.
- Maiatzaren 31n, Coca Colak eta Norbegak antolatutako Euskarazko Idazlanen Laugarren Lehiaketaren sari banaketan Andres Urrutia euskaltzainburua izan da.
- Ekainaren 7an, Patxi Salaberri euskaltzaina Euskalerria Irratiak Barañainen zuzenean eskaini duen saiora joan da Akademiaren izenean.
- Ekainaren 11n, Guggenheim Museoa egin den Euskal Enpresaren Topaketa ekitaldira Adolfo Arejita euskaltzaina joan da.
- Ekainaren 13an, Euskal Herriko Unibertsitateak Ramón Martín Mateo Honoris Causa Doktore izendatu du, Donostian. Xabier Kintana idazkaria joan da.
- Ekainaren 14an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Jesus Maria Leizaola "Lehendakari Zaharra" omendu du. Jose Luis Lizundia diruzaina joan da.
- Ekainaren 18an, Euskal Kazetarien Elkarteak 'Euskal Kazetariak 2007' saria eman du Ercilla hotelean. Amaia Okariz Prentsa eta Komunikazio arduraduna joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Ekainaren 27an, Hiroshima-Nagasaki: bonba atomikoaren ondorioei buruzko erakusketa inauguratu da Gernikako Bakearen Museoa, eta Jose Antonio Arana Martixa joan da.
- Ekainaren 27an, *Deiak* bere 30. urteurrena ospatu du Bilboko Euskalduna Jauregian. Andres Urrutia izan da Akademiaren izenean.
- Ekainaren 28an, Sabino Arana Fundazioak antolatu duen *Un nuevo 31. Ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi durante la Segunda Guerra Mundial a través de la correspondencia de José Antonio Aguirre y Manuel Irujo* liburuaren aurkezpenean Xabier Kintana izan da.

- Ekainaren 28an, Euskarazko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrien Inbentarioaren aurkezpena egin du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Donostian. Juan Jose Zearreta kudeatzailea izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Uztailaren 3an, Donostian egin diren XXVI. Uda Ikastaroen inaugurazio ekitaldira Ana Toledo joan da.
- Uztailaren 5ean, Mondragon Unibertsitateak bere 10. urteurreneko ospakizuna egin du Donostiako Kursaal-en. Ana Toledo Gipuzkoako ordezkaria joan da Akademiaren izenean.
- Uztailaren 9an, Euskal Gizataldeen Mundu Batzarrari hasiera eman zaio, Guggenheim Museoan. Henrike Knörr Iker sailburua izan da.
- Uztailaren 10ean, Gernikako Bakearen Museoan *Picasso-Gernika. 70. urteurrena*-ren erakusketaren inaugurazioa izan da eta Jose Antonio Arana Martixa joan da.
- Uztailaren 14an, Frantziako Errepublikaren Jai Nazionala ospatu du Bilbon dagoen Frantziako Kotsuladoak, Euskalduna jauregian. Andres Urrutia euskaltzainburua izan da Erakundearen ordezkari.
- Uztailaren 19an, Forum Europak antolatuta, Joaquin Almunia Komisario europarrak hitzaldia eman du Bilbon. Jose Luis Lizundia diruzaina joan da.
- Uztailaren 26an, Bizkaiko Diputatu Nagusiak harrera ofiziala eskaini die Bizkaiko gizartearen ordezkariari. Xabier Kintana eta Adolfo Arejita izan dira.
- Irailaren 14an, Elhuyar Fundazioak eta Elkar argitaletxeak euskara-ingeles hiztegia aurkeztu dute Donostiako Udal Liburutegian; Idazkaria eta Diruzaina izan dira Euskaltzaindiaren izenean.
- Irailaren 22an, BBK-k gonbidaturik, Isturitzeko lezeak ikustera joan dira Henrike Knörr eta Adolfo Arejita euskaltzain osoak eta Ander Manterola ohorezko euskaltzaina, Akademiaren izenean.
- Irailaren 26an, Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2007-2008 ikasturtearen hasiera-ekitaldian izan da.
- Urriaren 1ean, 2007-2008 ikasturteari hasiera eman dio Euskal Herriko Unibertsitateak Leioan. Xabier Kintana eta Henrike Knörr joan dira.
- Urriaren 7an, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak eta Bergarako Aranzadi Ikastolak *Kilometroak 2007* egin dute. Ana Toledo joan da Akademiaren ordezkari bezala.
- Urriaren 9an, Gernikako Euskal Herria Museoan inauguratu den Luis Garridoren erakusketan Jose Antonio Arana Martixa euskaltzaina izan da.
- Urriaren 17an, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzan, 2007ko Euskal Herriar Unibertsala saria eman diote Guggenheim Museoari. Henrike Knörr joan da.
- Urriaren 19an, Urte Judizialaren hasiera-ekitaldia izan da Bilboko Auzitegi Nagusian. Andres Urrutia euskaltzainburua joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Urriaren 21ean, Nafarroa Oinez ospatu da Vianan. Andres Iñigo, Xabier Kintana eta Juanjo Zearreta joan dira Euskaltzaindiaren izenean.
- Urriaren 25ean, Elkar-en 30. urteurrena ospatu da, Donostian. Ana Toledo izan da.
- Urriaren 25ean, BBKren Bilboko Erakusketa Aretoan, IBILARTE arte erakusketaren inaugurazioa egin da, Bizkaiko Ikastolen Elkarteak antolatua. Adolfo Arejita izan da Akademiaren izenean.
- Urriaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak prestatu duen “Pixka bat es

- mucho” kanpainaren aurkezpena egin da Donostian, eta Ana Toledo izan da.
- Azaroaren 22an, UZEIren 30. urteurren-ospakizun ekitaldira Ana Toledo Gipuzkoako ordezkaria joan da Euskaltzaindiaren izenean.
 - Azaroaren 30ean, 2007ko Anton Abbadia sariaren emate ekitaldira Ana Toledo joan da.
 - Abenduaren 13an, “Bilbotar ospetsu” izendatu ditu Bilboko Udalak zenbait pertsona eta elkarte. Idazkaria joan da Euskaltzaindiaren izenean.
 - Abenduaren 15ean, Atharratzen, 2007ko “Agosti Xaho” saria eman diote Jean-Louis Davanti. Euskaltzainburua joan da.
 - Abenduaren 16an, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finala izan da Donostian. Andoni Sagarna joan da Akademiaren izenean.
 - Abenduaren 17an, Eusko Jaurlaritzak “Euskararen Kalitate Ziurtagiria”ren aurkezpena egin du Bilbon. Euskaltzainburua joan da Akademiaren izenean.
 - Abenduaren 21ean, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak egin duen harrera-ekitaldira Manu Ruiz Urrestarazu joan da Euskaltzaindiaren izenean.

II. AKADEMIA JARDUERA

BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzordeetako lanen bidez garatzen da hein handi batean. Oinarri-oinarrikoa da, beraz, batzordeen eginkizuna. Hileroko osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: *Iker saila* eta *Jagon saila*. Bi urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutu etako irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak eta beste. Hori horrela izanik, Euskaltzaindiaren lana aberatsa eta ongi oinarritua gertatzen da, bai eta erabakiak hartzeko orduan ere.

Bilerak

Hona hemen, Euskaltzaindiko batzordeek 2007an egindako bileren berri:

Batzordeak	Bilerak
Hiztegi Batua	18
Zientzia eta teknika hiztegia biltzeko egitasmoa	3
Hiztegi Batua (2. itzulua) batzordea	(*)
Gramatika	9
Dialektologia-Atlasa	17
Onomastika	15
Exonomastika	12
Herri Literatura	10
Literatura Ikerketa	14
Corpus	5
Euskalkiak	4
Sustapen	5
Argitalpenak	2
Azkue Biblioteka	5
XI. Jagon Jardunaldia	1
XVI. Biltzarreko Batzorde Akademikoa	2
XVI. Biltzarreko Antolakizun Batzordea	2
Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT)	4
Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala)	6
GUZTIRA:	134

(*) Batzorde honek ez du bilerarik egin. Batzordeko idazkaria arduratu da lanaren kudeaketaz eta batzordekideekiko harremana posta elektronikoz bideratu du.

II.1. HIZTEGIGINTZA

Hizkuntza Akademia batentzako hiztegegintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Amaituta dagoen *Orotariko Euskal Hiztegia*-z gain Euskaltzaindiak beste bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Hiztegi Batua* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.

II.1.1 EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA

Orotariko Euskal Hiztegia amaitu ondoren, Akademiak, *Euskaltzaindiaren Hiztegia (Hiztegi Batua - 1. itzulia - Adierak eta adibideak)* izeneko hiztegia egitea erabaki du. Hiztegi horren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen *Hiztegi Batua* izango da, lehen itzulian argitaratutako hitzak.



Donostian, 2007-II-16an; Elizabet Kruzeta hiztegia lantzen.

- Idazketari dagokionez *bar - han* arteko lehen idatzaldia burutu da.
- Zuzenketa-lanari dagokionez, *a - ez* tarteko sarrerak egin dira.
- Orotariko Euskal Hiztegiko zenbait atal eguneratzen ere jardun du lantaldeak, eta osatze-lan hori baliagarria izango da *Euskaltzaindiaren Hiztegia* egiteko. *Baj - ber* artekoak osatu eta eguneratu dira.

II.1.2. HIZTEGI BATUA

Orotariko Euskal Hiztegia deskribatzailea eta historikoa den bezala, *Hiztegi Batua* hiztegi arauemailea dugu.

Hiztegi Batua-ren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuenak jaso ziren. Bigarrenean erabilera urriagokoak jasotzen ari dira. Lehenengo itzulian 22.736 sarrera landu eta onartu ziren. Bigarren itzuliak beste horrenbeste forma ditu aztergai. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 55.000 hitzetik gora izango du *Hiztegi Batua*k. Euskaltzaindiak lehen itzuliko formak, hitz-

zerrendak, osoko batzarretan aztertu ondoren, arau gisa eman zituen argitara, atalez atal. Eta 2000n, liburu bakarrean, *Euskera* agerkariaren 2000ko 2. zenbakian, hain zuzen, argitaratu ziren lehen itzuliko hitz-zerrenda horiek guztiak.

Interneten eskaintzen den Hiztegi Batuko zerrendak 31.782 hitz ditu guztira, 27.690 sarrera eta 4.092 azpisarrera.

Multzoka aztertu beharrekoak

Hiztegi Batuaren bi itzuliak burutzean, behar bezala aztertu gabe geratu ziren zenbait alderdi aztertu dira. Horietako bat, “multzoka landu beharreko formak” deitu izan dena.

Familia-loturak

Familia-loturei buruzko bi txosten gauzatu ditu lantaldeak. Txosten batean, onartzekoak direnak daude, Euskaltzaindiak lehendik bere arauetan jasoak dituenak; besteak, berriz, lantaldeak proposatzen ditu, Euskaltzaindiak onartzeko modukoak direlakoan. Gainerakoak, onartzekoak ez badira ere, laburki kasu guztietan adierazi du lantaldeak proposamenen irizpidea edo arrazoia. Irizpideak azaldu ondoren, forma eta arloka sailkatu ditu hitzak. Azkenik, bigarren txostenean, hurrenkera alfabetikoan familia-loturen zerrenda osoa eskaintzen du lantaldeak.

(...)-tar osaerakoena

Multzoka landu beharrekoen sail hau aztertzen hasi da lantaldea: (...)-tar osaerakoena. Txostena gauzatu da eta sintagmako izen bien azpikategorien eragina ikusi ahal izan da. Adibidez, leku-izena da maizenik eratorriaren oinarria (*Bilbo* > bilbotar, *Erroma* > erromatar), baina pertsona-izena ere izan liteke (*Klara* > klaratar, *Boole* > boolear), edo erakunde-izena (*Islam* > islamdar) edo izen arrunta (*errepublika* > errepublikar), edo zenbatzailea (*hamar* > hamartar); sintagma-burua, berriz, pertsona-izena da askotan (*Fernando* amezketarra) edo pertsonari dagokion izen arrunta (saratar *pilotaria*), baina pertsonari ez dagokiona ere izan liteke (boolear *algebra*, *abiadura* angeluarra).

Arauak

Hiztegi Batuan, A-D artean, garrantzi txikiko zenbait ukitu egin dira eta, E letran aldiz, *egia* eta *enkante* hitzen arteko oharrak txertatu dira, hau da, Euskaltzaindiak aztertzeko utziak zituen hitzei buruz hartu dituen erabakien emaitzak jarri dira interneten.

UZEIrekiko lankidetzak

Aurreko urteetako harremanei eutsiz, Euskaltzaindiak eta UZEIk lankidetzan jardun dute 2007an ere. Euskaltzaindiak emandako diru-laguntzaren trukean UZEIk lan hauek, nagusiki, egin ditu Akademiarentzat:

- Hiztegi Batuko Lantaldearentzat landu beharreko hitz-sail berriak prestatu eta horiei buruzko txostenak egin ditu, familia-loturez eta *-tar* osaerakoez.
- Hiztegi Batua (2. itzulua) batzordeburuaren esanetara, idazkaritza teknikoari dagozkion lanak bideratu dira, *e - elurtegi* saileko forma ohardunak jaso eta kontrolatuz.
- Euskaltzaindiko beste batzorde edo eta lantaldeetatik etor daitezkeen informazio eskaerei erantzun. Aurten, EiTBk bidalitako glosario edo aztergai berria landu du Hiztegi Batuko lantaldeak eta UZEIko prestalaneko taldeak berriz ere aztergaia egokitu eta informazioa eskura jarri du.
- Iritzi-emaileei *J, K, eta L* letretako zerrendak helarazi zaizkie eta haien oharrak jaso eta sistematizatu.
- Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoari (EEBSri) dagokionez, interneten dagoen XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa etengabe eguneratu du, Euskaltzaindiak hartutako erabakien arabera eta lantaldearen hileroko bileretako proposamenekin.
- Euskaltzaindiaren hileko osoko batzarretan Hiztegi Batuko lantaldeko arduraduna -eta UZEIko langilea- izan da eta, hala eskatu zaionean, argibideak eman ditu.
- Lexikoaren Behatokia eratzeko proiektua idatzi eta Euskaltzaindiari helarazi dio.

II.1.3. HIZTEGI BATUA (2. ITZULIA) ¹

Euskaltzaindiak aspaldi dihardu batasungintzan. Eta batasungintza esatea eta araugintza esatea bat dira. Akademiaren lehentasunetariko bat da hiztegi-gintza, eta eginkizun horretan oinarritzen da Hiztegi Batua (2. itzulua) batzordearen izaera. Hiztegi Batuko lantaldeetik hitz-zerrendak jaso eta Euskaltzaindiaren osoko batzarrean aurkezten ditu, eta zerrenda horiei egiten zaizkien oharren eztabaida bideratzen.

Azterturiko oharrak

Euskaltzainek bere egunean honako hitz-zerrenda hauei egin zizkieten oharrak aztertu ditu Hiztegi Batua (2. itzulua) batzordeak, eta erabaki-proposamenak osoko batzarretan aurkeztu, ondoren:

- *e* letraren zerrendan, *egile* eta *erlastar* hitzen arteko 479 hitz edo ohar.

¹ Lehen Euskara Batuko batzordea zuen izena; Euskaltzaindiak 2007ko apirilean egin dituen XV. Barne Jardunaldietan erabaki da izena aldatzea.

II.2. GRAMATIKA

Gramatika batzordea 1980an eratu zen eta orduz gero ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen. 1984tik 2005era bitartean bederatzizko liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izenburuarekin.

Batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da. Gramatika arlo honek dituen bi atal nagusietarik (aditz jokatuaz baliatzen diren perpausak eta aditz jokatu gabeaz baliatzen direnak) bigarrena lantzen ari da batzordea.



Donostian, 2007-II-26an; ezkerretik eskuinera: Maria Pilar Lasarte, Alan King, Pello Salaburu, Beñat Oihartzabal, Karmele Rotaetxe, Pierre Charritton, Juan Gartzia, Itziar Laka, Jesus Mari Makatzaga eta Patxi Goenaga.

EGLU VII (Mendeko perpausak 3) liburua prestatzen

Menderakuntzari buruzko hirugarren liburuak (perpaus aditz jokatu gabeen buruzkoak) izango dituen txosten hauek landu dira 2007an:

Behin betiko idatzaldia eman zaie txosten hauei:

Helburuzko perpausak
Kausazko perpaus jokatu gabeak
Helburuzko perpausak

Lehenbiziko idatzaldia eman zaie txosten hauei:

Baldintzazko perpausak
Kontzesio-perpausak
Aditz jokatu gabea eta ETA enklitikoa

Hizkuntza kontsultak

Ohi bezala, batzordea JAGONET zerbitzuaren bidez jaso diren galderei erantzuten aritu da. Hona hemen Gramatika batzordeak eztabaidatutako galderetako batzuk:

- *Ez duzu zer(tan) hauen bila ibili beharrik: Euskaltzaindiak egitura honen gainean idatzi dituen aipamen bibliografikoak.
- “Zuk halako bi egin ditut nik” egituraren zuzentasunaz/egokitasunaz.
- Aditzen erregimenari buruz Euskaltzaindiak argitaratu dituenak.
- Aditz-lokuzio batzuen hitz-ordenaz eta partitiboaren erabileraz: *lo egin, hitz egin, berba egin, parte hartu, lan egin, barre egin...*
- *Bi-biek* egitura (*Bi idazkari daude eta bi-biek sinatu dute akta*) heda ote daitekeen gainerako zenbakietara ere: *bost-bostek*, adibidez.
- *-eNO* menderagailuaren erabilera batzuez.
- Ergatibotasunari buruzko informazioa.
- *Etziko / etzirako*: bigarren formaren egokitasunaz.
- *Euskal aditz batua* argitalpenaren inguruko kontuak (aditz batzuen formaz...).
- Euskal hitz-ordenaren inguruko informazioa.
- *Hau guztiau* egituraren bidetik *hau gizonau* modukoak onartzen diren ala ez eta, onartzen badira, arau morfologikoak aplikatu behar zaizkien ala ez.
- *Ikasiagatik, etorri izanagatik, ...*: kausa- ala kontzesio-balioa?
- *Karlos II. errege suediarra / Karlos II.a errege suediarra*.
- *Latinetiko hitzak* ala *latinetikako hitzak*? Zein da zuzena? Erabakita al dago zerbait?
- *Ordeztu* aditzaren erregimenak: *-rekin, -z, -ren bidez, -gatik*?
- *-RIK* atzizkia erabil daiteke gaur egun ablatiboa adierazteko?
- Sintagma justaposatuen sintaxiaz: *Legez besteko proposamena, guraso bakarreko familiekiko jokaera-planari buruzkoa (/ buruz)*.
- *-TZEAGATIK* eta *-eLAKO* atzizkien arteko aldeez.

Euskal Gramatika Orotarikoa

Honako lan hauek egin dira:

- *EGLU*etan erabili diren terminoak bildu dira.
- *EGLU*etako aurkibideak bildu dira eta, horietan oinarrituz, *EGO*ren aurkibidea osatzeko proposamenak gehitu.
- *OEH*n ageri diren aditz guztiak jaso dira, eta haien erregimena aztertzeari ekin zaio.
- *OEH*n ageri diren lokailu eta lotura-hitz guztien zerrenda egin da, *EGLU*etan batzuk bazterrean utziak baitziren.
- Hitz-loturak. *OEH*ko lotura-hitzak jaso dira, bilketa sistematikoa eginez.
- Aditz-erregimena: informazio zehatza bildu da, halaber, aditz-erregimenari buruz, hauek kontuan hartuz: *EGLU*etan dagoen informazioa, *JAGONET*eko materiala, beste gramatika batzuek gai honi buruz diotena (batez ere katalanek *-Gramàtica del català contemporani-* eta Espainiako Akademiak).
- Sarrera. Gramatikaren sarrera izan daitekeena idazteari ekin dio egitasmoaren Zuzendariak.

II.3. DIALEKTOLOGIA

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa

Galdeketa puntuen sarea, galdesorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren: 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 syntaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herri horietan eginiko inkestekin 2.400 zinta grabatu ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 ordutik gora dira.

Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

Atlasgintza

Atlaseko lantaldeak 2007an izan dituen lan eremuak hauek izan dira:

- inkesten datuak base automatizatuan sartzen jarraitzea
- datuak lantzea, datu-basea prestatuz eta mapak editatuz

Datuak sartu

- *4b atala*: sartzea falta ziren bi herri hauek informatizatu dira: Hazparne eta Aldude.

- *5. atalean*, herri hauetako datuak sartu dira:

- Bizkaia (10): Arrieta, Berriz, Errigoiti, Laukiz, Leioa, Lemoa, Lemoiz, Mungia, Otxandio eta Zornotza.
- Gipuzkoa (7): Asteasu, Deba, Eibar, Elgoibar, Errezil, Orexa eta Urretxu.
- Lapurdi (2): Ahetze eta Senpere.
- Zuberoa (2): Pagola eta Sohüta.

Datuak landu

Arlo honetan mapak egin dira, berrikusi eta zuzendu; eta ondoren, datuak elaboratu eta mapen eta datu-basearen azterketa egin. VI. liburukia osatuko duen materiala lantzeari ekingo zaio, 10 galderari dagozkien mapak eginez.

Datuen garraioa

Laugarren liburukiari dagozkion datuak sistema zaharretik berrira garraiatzea bukatu da.

Argitalpena prestatu

Bigarren liburukia argitaratzeko prest utzi da.

II.4. ONOMASTIKA

Onomastika batzordea 1972an sortu zen, lehendabizi “Herri eta Herritarren Izenen batzordea” izenarekin. 1981ean, Loiolako II. Barne Jardunaldietan batzorde guztien organigrama finkatu zenean, oraingo izena eman zitzaion batzordeari.

Batzorde honek ponte-izenak, deiturak eta leku-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko ikerketa finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu.



Vianako Udaletxean, 2007-IX-21ean; ezkerretik eskunera: Jose Luis Lizundia, Roberto Perez Viñaspre, Patxi Galé, Felix Mugurutza, Mikel Gorrotxategi, Andres Iñigo, Imanol Goikoetxea, Patxi Salaberrí eta Elena Martinez de Madina.

Euskal Deituren Izendegia osatu

Euskal Deituren Izendegia 1998an argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren beste 31 deitura finkatu dira batzordean 2007an zehar.

Ponte izendegia osatu

Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms liburua 2001ean argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren 59 pertsona-izen finkatu dira batzordean 2007an.

Toponimia-lanak gainbegiratu

Herri hauetako toponimia-ikerketak gainbegiratzen aritu da batzordea 2007an: Azkoitia, Berriz, Burgu, Erandio, Errigoiti, Gaategiz-Arteaga, Gorliz, Ibarangelua, Karrantza, Leioa, Mungia, Ordizia, Sopela, Zaratamo, Zerain, Zornotza eta Iparraldeko Toponimia.

Onomastikako araugaiak prestatu

Batzordeak Nafarroako herri izendegiaren araugaia prestatu du, 544 izen onartuz: Iruñeko merindadeko iparraldeko 56 herri- eta herritar-izen, Iruñeko merindadeko erdialdeko 56, Iruñeko merindadeko hegoaldeko 56, Zangozako merindadeko iparraldeko 74, Zangozako merindadeko hegoaldeko 58, Lizarrako merindadeko iparraldeko 38, Lizarrako merindadeko erdialdeko 50, Lizarrako merindadeko hego-mendebaldeko 56, Erriberriko merindadeko 54 eta Tuterako merindadeko 46.

Udalen kontsultak

Lan hau EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkartearekin) Euskaltzaindiak egina duen hitzarmenari esker gauzatu ahal izan da.

Herri-, auzo-, kale-, industrialde-, baserri-, baseliza- eta etxalde-izenez herri hauetako udalei erantzun zaie idatziz edo bertara joanez: Aiarako kontzejua, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Barakaldo, Baztan, Berango, Bilbo, Eritze Itza-ko Administrazio batzordea, Galdames, Gasteiz, Guardia (Arabakoa), Irunberri, Laminoria, Larragoa, Legutio, Lukiano, Mallabia, Ollabarri hiribilduaren kontzejua, Urduña eta Zangoza.

Erakunde eta elkarte batzuen kontsultak

Erakunde hauei erantzun zaie: Bizkaiko Foru Aldundia, Deustuko Unibertsitateko DEIKER, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Iruñeko eta Nafarroako zenbait eliza, Sü Azia, Euskal Irrati Telebista, EUSTAT eta Euskalnet.

Banakako kontsultak

Lehenago aipatu diren pertsona-izen, leku-izen eta deiturez gain, herritarrek zuzenean (intenet bidez, gutunez eta ahoz) egindako kontsulta ugarietara erantzun zaie.

Euskal Corpus Onomastikoa (ECO)

Egitasmo honen helburua, euskarazko izen propio edo berezien ahalik eta corpus osoena biltzea da. Horretarako datu-base bat diseinatu da eta datuak jasotzen hasi.

Abiapuntua, *Nafarroako Toponimia* eta *Mapagintza* bildumak (59 liburuki) jasotzen dituen leku izenak izan dira eta horietatik osatzen dute datu-basearen atalik handiena (100.000 leku inguru), nahiz eta etorkizunean Euskal Herri osoko leku-izenak jasotzeko asmoa dagoen. Leku bakoitzaren izen arautuarekin batera, dokumentazioan nahiz ahozko bilketetan jasotako erak ere gorde nahi dira datutegian.

Behean zehazten diren mota ezberdineko izenak erregistratu dira 2007an zehar, datu-basean jasoz:

Lekuak	2.088 leku-izen aztertu dira: bikoiztasunak aurkitu dira eta izen bera behin bakarra utzi datu-basean
Exolekuak	351 izen gehitu dira
Izenak	23 izen gehitu dira
Deiturak	1 gehitu da
Iturriak	230 izen gehitu dira
Irizpideak	4 gehitu dira
Era dokumentalak	32.152 izen gehitu dira
Ahozko lekukotzak	42 gehitu dira

Egitasmo hau, Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiarekin sinatua duen hitzarmenean jarri dituen baliabideei esker gauzatu ahal izan da.

Gasteizko Toponimia lantaldea

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker jarraitu da Udalbarrutiaren toponimia biltzen eta finkatzen. *Malizaeza* eskualdean bilduko diren herrien zerrenda erabaki da: Aretxabaleta, Armentia, Arriaga, Berroztegieta, Ehari / Ali, Eskibel, Gardelegi, Gaztelu / Castillo, Gobeu, Lasarte, Mendiola, Monasterioguren eta Vitoria-Gasteiz.

Aurten Ehari, Gobeu, Arriaga, Gasteiz hiria (I), Gaztelu eta Mendiola herriei dagokienez, prestaketa lan hau egin da:

- aurrelano ohar guztiak jaso eta antolatu
- oharrak berrikusi, osatu eta testua idatzi
- sarrerak normalizatu
- toponimoen sarrerak prestatu.

II.5. EXONOMASTIKA

Batzorde honek exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu, araugintza, irizpen eta aholkularitza lanetan dihardu.

Exonomastikako araugaiak prestatu

“Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak”

Munduko estatuen arau hori eguneratu, osatu, zuzendu eta janztea izan da Batzordearen lana. Gaur eguneko datuak estatuz estatu aztertu eta egiaztatu ondoren hizkuntzen erabilera-eremuei buruzko oharrak prestatu dira; horren ondoren, estatu, hiriburu eta hizkuntza berrien euskarazko ordainak proposatu dira, eta etnia-izenei buruzko azterketa ere egin behar izan da. Halaber, Errusia barneko hizkuntza ofizialen atal berria egin da.

Euskaltzaindiak martxoko batzarrean onartu du 38. arau berritua, batzordearen proposamenez.

“Espainiako eta Frantziako eskualdeak”

Batzordeak "Espainia-Frantzietako eskualde-izenak erabiltzeko irizpideak" izenburua duen araua prestatu du. Azaroaren 30ean onartu du Euskaltzaindiak proposamen hori, 151. zenbakia duen arau bihurtuz.

“Europako eskualde historiko-politikoak”

Gaiaren irizpide nagusiak eztabaidatu eta finkatu ondoren, arauak izango duen bolumena kontuan hartuta, atalka lantzea eta euskaltzain osoei zatika aurkeztea erabaki da. Europako eskualde hauen testuak prestatu ditu batzordeak 2007an zehar:

- Arauaren sarrera.
- Italia, Belgika eta Herbehereetako eskualdeak.
- Alemania, Austria eta Suitzako eskualdeak.
- Eskandinavia, Erresuma Batua eta Irlandako eskualdeak.
- Baltikoko kostaldeko eskualdeak (Finlandia, Estonia, Letonia, Lituania eta Polonia).



Donostian, 2007-XI-9an: ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Alfontso Mujika, Andres Iñigo eta Mikel Gorrotxategi.

Irizpenak eta erantzunak

Kirol proben izenak

EiTBk Euskaltzaindiari kirol-probei buruz helarazitako galdera-txostena aztertu du batzordeak, hau da, aurkeztutako 145 izenak. Kirol-proben izenetan agertzen diren toponimoen inguruko galdera-zerrendari erantzun zaio.

Kosten izenak

Espainiako kostaldeen izendapen turistikoen euskarazko ordainei buruzko galdera iritsi da batzordera. Galdegileari erantzuteaz gainera, Exonomastika batzordearen gomendio gisa argitaratzea erabaki da, 2007ko irailaren 25ean, "Kosten izenak, Exonomastika batzordearen gomendioa" izenburu pean. Hor 21 kosta-izen ageri dira.

II.6. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura arloa bi sail nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira, batez ere bertsolaritzatik kanpo dauden beste generoak. Bestetik, euskal literaturaren hiztegia lantzen ari da: hitz zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango ditu hiztegi horrek, maila eta luzera desberdineko txostenak eskainiz. Helburua seiehun inguru txostenez osatutako hiztegia eskaintzea da.

Herri Literaturako batzordekoek parte hartzen dute, baita ere, hango eta hemengo antolabideetan, herri erakundeek Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen badute, hala nola sariketetako epaimahaietan, sari banaketetan eta hitzaldiak ematen. Bestalde, Literatura Ikerketa batzordeak parte hartzen du autore ospetsuen omenaldietan, omenetako pertsoneri buruzko ikerketa txostenak eginez.

II.6.1. HERRI LITERATURA

Herri literaturaren arloan, aldian-aldian han eta hemen egin diren ekintzetan parte hartu dute batzordekideek.

Herri Literatura jardunaldien antologia

Urte ezberdinetan zehar egin dituen Jardunaldietako artikuluen antologia-liburuaren ezaugarriak eztabaidatzen eta argitzen hasi da batzordea.

Xahoren kantutegia

Xahoren kantutegia-ren argitalpena prestatzeko lana hartu du batzordekide batek, batzordeak gainbegiraturaz. Lan-sistema, kantutegi-eredua eta egindako lana eta metodologia aztertu dira.

Herri Literatura datutegia sortzeaz

Herri Literatura datutegia sortzeko eta zertzeko egitasmoaren oinarriak lantzen hasi da batzordea. Batetik, testu idatziekin nola jokatu hausnartzen; bestetik, Adolfo Arejitak apirilean, Etxalarren egin diren XV. Barne Jardunaldietan aurkeztu duen "Ahozko ondarea biltzeko egitasmoa" aztertzen.

II.6.2. LITERATURA IKERKETA

Leturiaren egunkari ezkutua-ren 50. urteurrena

Euskal Herriko Unibertsitatearekin izan diren harremanen ondorioz, 2007ko Udako Ikastaroen barruan antolatu da Jardunaldia, Donostian 2007ko uztailean. Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriak 50 urte egin dituela eta, aldi hartako literatura giroa aztertu nahi izan du batzordeak. Hau izan da egitaraua:

- Uztailaren 16an: *Leturiaren aurreko euskal eleberrigintza (1945-1957)*
 - Sarrera eta aurkezpena: *Literatura Ikerketa Batzordeak antolaturiko jardunaldion arrazoiketa*. Ana Toledo Lezetak.
 - *Guda ondoko lehen eleberrietako bi*: Antton, J. P. Iratxet (1946). Ur Apalategik.
 - *Ekaitzpean*. J. Izagirre (1948). Jon Kortazarrek.
 - *Jon Etxaideren eleberri historikoak: Alos-torra (1950) eta Joanak Joan (1955)*. Javi Rojok.
 - *Amabost egun Urgainen (1955) eta eleberrigintza poliziakoaren hastapenak*. Javi Cillerok.



Donostian, 2007-VII-16an; ezkerretik eskuinera: Ana Toledo eta Lourdes Otaegi.

- Uztailaren 17an: *Leturiaren egunkari ezkutua (1957). Testuingurua eta eraginak*
 - *Leturiaren egunkari ezkutua: haustura bat gerra ondoko euskal narratiban?* Jon Casenavek.
 - *Leturiaren egunkari ezkutua-ren irakurketa gaur egungo ikuspegitik*. Iñaki Aldekoak.
 - *Liburuaren harrera garaikideen artean*. Patri Urkizuk.
- Uztailaren 18an: *Leturiaren egunkari ezkutua-ren zenbait alderdi ikutu gabeko*

- *Leturiaren egunkari ezkutua: gizon eta emakume irudiak.* Iratxe Retolazak.
- *Gizartea krisialdian: Leturia ikuspuntu erlijiosotik hartuta.* Sebastian Gartziak.
- *Leturia-ren uda ezkutua.* Karlos Otegik.

Epaimahaikideak proposatu

Literatura-sari hauetan epaimahaikide izateko izen-proposamenak egin dizkio Euskaltzaindiari batzordeak:

- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak 2007an antolatu dituzten sari hauetan: Txomin Agirre eleberria, Toribio Alzaga antzerkia, Felipe Arrese Beitia olerkia, Mikel Zarate saioa, eta Gazteentzako Azkue Sarietako A eta B arloak.
- Kultura Ministerioak 2007an antolatu dituen Sari Nazionaletan: Olerkia, Narratiba, Saiakera, Antzerkia eta Haur Literatura.



Donostian, 2007-II-16an: ezkerretik eskuinera: Ana Toledo, Jean Haritschelhar, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Sebastian Gartzia Trujillo, Patri Urkizu, Ur Apalategi, Iratxe Retolaza, Aurelia Arkotxa, Karlos Otegi eta Txomin Peillen.

J. M. Lekuonaren bio-bibliografia

Batzorde honetako bost kidek txosten bana egin dute Oiartzungo Udalak egitea proposatu duen argitalpenerako, hots, Juan Mari Lekuonaren bio-bibliografiaz. Lanaren ezaugarri nagusietakoa, Juan Mari Lekuonaren hurbileko erretratua osatzea da.

J. M. Lekuonaren omenezko liburua

Euskaltzaindiak Juan Mari Lekuona zenari omenaldi-liburua egitea erabaki du, batzordeak proposatuta. Batzordekide zenbaitek hor parte hartuko dutenez, nork zertaz idatziko duen aztertu da batzordean.

Euskal Literaturaren antologia


Batzordeak egitasmo honi buruzko eztabaidari ekin dio, ereduak eta historia-sailkapen ezberdinak kontuan izanik. Behin-behineko banaketa hau egitea aurreikusi da: Erdi Aroa, Errenazimendua eta Erreforma, Barrokoa, Klasizismoa eta Kontrarreforma, Neoklasizismoa eta Ilustrazioa, Erromantizismoa, XX. Mendea.

II.6.3. SARIKETAK

Eleberri, antzerki, olerki eta saiakera sariak

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatzen dituzten literatura-sarien 2007ko irabazleak honako hauek izan dira:

- Txomin Agirre eleberri saria: eman gabe geratu da.
- Toribio Alzaga antzerki saria: Pablo Barrio Ramirez. Lana: *Kontrako bidean*
- Felipe Arrese Beitia olerki saria: Karmele Igartua Bengoa. Lana: *Hitzak orbainetan*
- Mikel Zarate saiakera saria: Julen Arriolabengoa Unzueta. Lana: *Euskara Iburguen-Cachopin kronikan*.



Bilbon, 2007-XII-17: ezkerretik eskuinera: Pablo Barrio, Julen Arriolabengoa eta Karmele Igartua.

Epaimahaikoak jaun-andre hauek izan dira:

- Txomin Agirre sarian: Sebastian Gartzia, Ur Apalategi eta Iratxe Retolaza.
- Toribio Alzaga sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia sarian: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- Mikel Zarate sarian: Adolfo Arejita, Antton Aranburu eta Iñaki Aldekoa.

R. M. Azkue sariak

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera idazle gaztetxoek lanak saritzen ditu urtero. Hona hemen 2007ko *R. M. Azkue* saria irabazi dutenen berri:

Sari-mota, adina	Lan sarituak	Irabazleak	Ikastetxea eta herria
A: narrazioa 10 - 13 urte	1) <i>Liburuaren sekretua</i> 2) <i>Lurgaineko kontesa</i> 3) <i>Usoa eta armiarma</i>	Mailen Dagorret Lierni Varela Aurélie Christmann	Xalbador (Kanbo) Urola (Azpeitia) Xalbador (Kanbo)
A: olerkia 10 - 13 urte	1) <i>Nire burutik</i> 2) <i>Zure irudia</i> 3) <i>Amatxi</i>	Leire Arenas Naia Leconte Kattalin Duhalde	Ikasberri (Azpeitia) Xalbador (Kanbo) Xalbador (Kanbo)
B: narrazioa 14 - 17 urte	1) <i>Trapuzko panpinaren egunerokoa</i> 2) <i>Bizitzaren pentagraman jolasean</i> 3) <i>Ohartu zarelako</i> Accesit: - <i>Kafe usaina</i> - <i>Begien bakarrizketan</i>	Izar Azpiroz Alaine Agirre Olaia Azpiroz Jon Cadierno Maite Agirre	Oiartzo (Errenteria) Arozena (Bermeo) Hurtzaro (Oiartzun) Iparragirre (Zumarraga) Loinazpe (Beasain)
B: olerkia 14 - 17 urte	1) <i>Prefabrikatutako ametsak bide itxietan</i> 2) <i>Txoriak askatzen</i> 3) <i>Etsaiak</i>	Haizea Alvarez Izar Azpiroz Unai Lires	Aixerrota (Getxo) Oiartzo (Errenteria) Tx. Agirre (Ondarroa)



Egoitzan, 2008-III-12an; 2007ko Azkue sarien irabazleak.

Hauek izan dira Azkue Sarietako epaimahaikoak:

- A mailan, Kirmen Uribe, Antton Irusta eta Manu Lopez.
- B mailan, Joseba Butron, Yolanda Arrieta eta Jabier Kaltzakorta.

Bestelako sarien epaimahaietan parte hartzea

- Urtero, Espainiako Kultura Ministerioak ematen dituen “Literatura Sari Nazionaletarako”, Euskaltzaindiaren izenean 2007ko deialdian parte hartzeko izendatu diren epaimahaikideak honako hauek dira:

- “Premio Nacional de las Letras Españolas”, Aurelia Arkotxa
- Poesia arloan, Jon Kortazar
- Narrazioan, Ur Apalategi
- Saiakeran, Lourdes Otaegi
- Antzerkian, Sebastian Gartzia
- Haur eta gazte literaturan, Miguel Asiain
- Itzulpen sarian, Andoni Sagarna

- Iruñeko Udalak antolatu duen Euskarazko Haur Literatura Leihaketako epaimahaian, Patziku Perurena izan da ordezkaria.

II.7. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du *Jagon Saila*, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua:

- *Corpus* batzordea euskararen corpora jagoteaz arduratzen da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik.
- *Sustapen* batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da.

II.7.1. CORPUS BATZORDEA

JAGONET: kontsulta- eta aholku-zerbitzua

2001eko martxoaren 21ean hasi zen jendaurrean lanean -Euskaltzaindiaren webgunean- JAGONET zerbitzua (www.euskaltzaindia.net). Emandako erantzunen datu-basea ikusteko eta galderak egiteko aukera eskaintzen da:

- Galdeleku informatikoa, posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da (eta pribatua galdegilearekiko). Urtean zehar 1.554 galdera jaso dira, eta horietako 1.509 galderari erantzun zaie.
- Galde-erantzunen datu-basea, emandako erantzunak bilduz osatzen doana. Une honetan datu-basea 523 galdera-erantzunez osatua da.
- Interneteko kontsultak. Urtean zehar, batetik 52.158 bilaketa egin dira datu-basean eta, bestetik, 140.723 aldiz bistaratu da JAGONETen orri nagusia.



Egoitzan, 2008-I-25ean: ezkerretik eskuinera: Xabier Mendiguren, Juan Luis Goikoetxea, Andres Iñigo, Paskual Rekalde eta Joseba Butron.

Estrategia komunikatiboak

Lan horren 4. kapitulua adibidez hornitu da, eta lana burutu duen batzordekideak behin-behineko testu osoa banatu die batzordekideei, argitaratze bidean jartzeko.

Irizpen eskabideak aztertu eta erantzuna prestatu

Euskaltzaindiaren zuzendaritzak Corpus batzorde honen esku utzi ditu herri aginteek helarazitako kontsulta hauek:

- *Letra larriak erabiltzeko irizpideak* liburugaia, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskatua. Urte bukaeran ontzat eman da testua eta Euskaltzaindiaren onirizpena bidali.
- Ehunekoen ikurra (%) nola idatzi behar den argitzea, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak eskatua. Aztertzen ari da.
- Zenbait herri-kirol izeni buruzko irizpena, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak eskatua. Aztertzen ari da.

Euskalkien ekarria aztertu

Euskalkien lantaldea “Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua” lan egitasmoa lantzen ari da. Hasia da lantaldea nafarrerari dagokiona lantzen, Sakanako lexikoaren azterketari ekinez.



Donostian, 2007-II-2an: ezkerretik eskuinera: Nagore Etxebarria, Jon Aurre, Jose Luis Erdozia, Manu Ormazabal, Kaxildo Alkorta, Patxi Iñigo, Andres Urrutia, Ramon Zubimendi eta Paskual Rekalde.

Lantaldeak 157 termino aztertu ditu, honela sailkatuta:

- 106 termino ontzat eman eta Hiztegi Batuko 2. itzulirako proposatu ditu.
- 24 termino ontzat eman eta Hiztegi Batuko 3. itzulirako proposatu ditu.
- 4 termino berri ontzat eman ditu.
- 31 termino ez ditu ontzat eman.

II.7.2. SUSTAPEN BATZORDEA

X. Jagon jardunaldietako hitzaldiak argitaratu

2006ko azaroaren 24an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, “Europar Batasunean eremu urriko hizkuntzak” izeneko jardunaldiak burutu ziren. Han irakurri ziren hitzaldiak bildu eta argitaratu ditu ditu batzordeak. (In *Euskera*, 2006, 2, 885 - 1.017 orr.).

XI. Jagon Jardunaldiak, EAEko 10/1982 Legearen 25. urteurrenean

2007ko azaroaren 24an, EAEko 10/1982 Legeak, hots, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko habe juridikoak 25 urte bete dituela-eta, Lege hori izan da aztergai XI. Jagon Jardunaldietan.

Euskaltzaindiak Sabino Arana Fundazioarekin batera antolatu ditu XI. Jagon Jardunaldiak. Egitarauak, ostera, hiru zati izan ditu; batetik, Legea ikuspegi historikotik, politikotik eta juridikotik aztertu da; bestetik, Legea onartu zenetik hona, euskarak izan duen garapenez ausartu da, besteak beste, hedabideetan, administrazioan, hezkuntzan, esparru sozio-ekonomikoan edota informazio eta komunikazio teknologia berrietan; azkenik, Iparraldetik eta Nafarroatik begiratuta Legeak izan duen eragina ere aztergai izan da.



Egoitzan, 2007-XI-23an; ezkerretik eskuinera: Mikel Zalbide, Andoni Sagarna, Ana Toledo eta Julian Beloki.

Hona hemen egitaraua:

- Agurra: Andres Urrutia euskaltzainburua eta Juan Mari Atutxa Sabino Arana Fundazioaren lehendakaria.
- XI. Jagon Jardunaldien aurkezpena: Andres Iñigo, Jagon sailburua.
- Legearen ikuspegi historiko, sozial eta politikoaz:
 - Joseba Intxausti, Euskararen Legearen aurreko euskal gizarteaz

- Jose Luis Lizundia, Euskararen Legearen sorrerako giro politikoaz
- Moderatzailea: Andres Iñigo
- Euskaltzaindiaren Jagon bildumaren 5. liburukiaren aurkezpena: *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz.*
- Euskararen Legea ondu zutenei omenaldia.
- Legea onartu zenetik hona, euskarak izan duen garapenaz:
 - Gotzon Egia, Administrazioan
 - Anaje Narbaiza, Arlo sozio-ekonomikoa
 - Mikel Zalbide, Hezkuntzan
 - Julian Beloki, Hedabideetan
 - Andoni Sagarna, Teknologia berrietan
 - Moderatzaileak: Manuel Ruiz Urrestarazu Ana Toledo.
- EAEko Euskararen Legearen garapenaz Euskal Herriko beste lurraldeen ikuspegia:
 - Sagrario Aleman, Nafarroarena
 - Erramun Baxok, Euskal Herri kontinentalarena
 - Moderatzailea: Jean-Baptiste Coyos
- Amaiera
 - Ondorioak: Erramun Osa
 - Agurra: Andres Urrutia eta Juan Mari Atutxa

Recuperación del euskera en Navarra-ren aurkezpena

2007ko irailaren 21ean, Nafarroa Oinez dela-eta, Sustapen batzordeko kideek Vianako Erentzun ikastolak eguerdian antolatutako harreran esku hartu dute. Halaber, arratsaldean, Vianako Udaletxean ohiko bilera egin du batzordeak. Horren ondoren, Vianako Kultura Etxean ageriko bilkura egin da. Erentzun ikastolaren bilakaeraz hitz egiteaz gain, Miquel Gros y Lladós-en *Recuperación del euskera en Navarra* (Jagon bilduma, 4) liburuaren aurkezpena ere egin da (Ikus I.4. atala).



Egoitzan, 2008-I-25ean; Miquel Gros y Lladós euskaltzainei *Recuperación del euskera en Navarra* liburua aurkezten.

Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz-en aurkezpena

2007ko azaroaren 24an, XI. Jagon Jardunaldien testuinguruan aurkeztu da Sustapen batzordeak prestatu duen liburua: *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz*, Jagon bildumaren 5. liburukia.

Hizkuntza-zuzenbidearen arloan nazioarteko testu garrantzitsuenen bilduma eskaintzen du liburua. Testu-bildumarekin batera, eranskin gisa, aurkibide analitikoak eta iturrien zerrenda ere agertzen dira liburuan. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzaz argitaratu da.

Hizkuntza-eskubideei buruzko proposamenak

Eusko Jaurlaritzak Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen 6/2003 Legearen VII. Kapitulua (hizkuntza-eskubideak) garapen Dekretuaren behin-behineko proposamena audientzia publikoan jarri duenez gero, besteren artean, Euskaltzaindiari azter dezan eta egoki irizten dizkion hobekuntza-proposamenak egin ditzan eskatu dio. Hori horrela, Sustapen batzordeak testua aztertu eta hainbat hobekuntza proposamen egin ditu berriaz prestatutako txosten batean bilduz.

Beste ekintza batzuk

- 2007. urteko *Araba Euskaraz* ekitaldia Argantzunen burutu delarik, Argantzungo Udalak Euskaltzaindia gonbidatu du. Hala, Sustapen Batzordeak, 2007ko ekainaren 15ean, Argantzunen egin den Ikastolaren eraikin berria bisitatu eta Udaletxean ohiko bilkura egin du.
- Euskaltzaindiak Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin daukan hitzarmena kontuan izanik, 2004. urteko Jardunaldi Pedagogikoetan hartutako konpromisoa bete nahiz, *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz* izeneko lana paratu eta argitaratzeko bidean jarri da.

III. ERAKUNDE ZERBITZUAK

Aurreko atalean ikusi den bezala, Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

III.1. EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: Argitalpen eta Banaketa zerbitzua, batzordeen koordinazioa, Prentsa eta Komunikazioa, Informatika, Azkue Biblioteka eta Kontularitza. Egoitzan kokatzen da Akademiaren Zuzendaritza ere.



Bilbon, Plaza Barrian, Euskaltzaindiaren egoitza.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiriburutan kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek, bai egoitzatik eta baita ordezkarietatik bideratzen dira.

Ordezkarriak

Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko bulegoetatik koordinatzen dira lurralde bakoitzean euskararekiko egiten diren ekintza garrantzitsuenak eta, hala deitua denean, Erakundearen lekukotasuna ematen da bere ordezkarien bidez. Agerpen hauek *Oroitidazki* honen I. atalean azaltzen dira.

Jendaurreko zerbitzuak

Bost bulegoetara etortzen diren hiritarren eskabideak erantzuten dira ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginez, gehienbat, baina baita ere toponimia eta euskararekiko beste gai ugari aztertuz. Egoitzan eta ordezkarietzan 110 ponte-izen eta 57 deiturari buruzko ziurtagiriak egin dira. Bisitei dagokienez, interneten bidez, www.euskaltzaindia.net helbidean, 1.348.872 bisita izan dira eta www.euskaracorpora.net helbidean, 137.699 bisita. Horrez gain, Euskaltzaindiaren egoitzan 5.094 lagun izan dira.

Erakundearen bilerak

Bilbon egin ohi dira hileroko osoen bilkurak eta Zuzendaritzakoak, nahiz eta Donostian ere tartekatzen diren. Aipatutako bilera horiez gain, batzorde eta lantalde bilera hauek egin dituzte: Gramatika batzordea, Donostian; Herri Literatura, Donostian; Literatura Ikerketa, Donostian eta Baionan; Dialektologia-Atlasgintza, Bilbon; Hiztegi Batuko lantaldea, Donostian; Corpus batzordea, Donostian; Sustapen batzordea, Donostian, Argantzunen eta Vianan; Euskalkien lantaldea, Donostian; Onomastika batzordea, Donostian, Ziordian, Oiartzunen, Vianan, Altsasun eta Argantzunen; Exonomastika batzordea, Bilbon eta Donostian; Informatika eta Komunikazio Teknologia batzordea, Bilbon eta Donostian; XVI. Biltzarraren batzordea, Donostian eta Bilbon; Argitalpen eta Azkue Bibliotekako batzordeak, Bilbon.



Egoitzan, 2007-VII-20an, Euskaltzaindiaren hileko batzarra.

Zuzendaritza

Gutxienez, hilero biltzen da. Kudeatzaileak antolatzen ditu bilerak dagokien kargudunekin. Erakundearen gobernu, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardunbidearen agintea eta erantzukizuna dagokio Zuzendaritzari. Aurten 20 bilera egin ditu ondoko laukian zehazten den bezala:

urtarrilaren 12an	DONOSTIAko ordezkarietan
otsailaren 1ean	DONOSTIAko ordezkarietan
otsailaren 22an	Egoitzan
martxoaren 16an	USURBILen (Elhuyar)
martxoaren 29an	DONOSTIAko ordezkarietan
apirilaren 19an	ETXALARen (Kultur Etxea)
maiatzaren 11n	Egoitzan
maiatzaren 31n	Egoitzan
ekainaren 14an	DONOSTIAko ordezkarietan
ekainaren 28an	DONOSTIAko ordezkarietan
uztailaren 10ean	Egoitzan
uztailaren 19an	Egoitzan
irailaren 14an	DONOSTIAko ordezkarietan
irailaren 27an	Egoitzan
urriaren 16an	DONOSTIA, Miramonen
urriaren 25ean	DONOSTIA, Miramonen
azaroaren 9an	DONOSTIAko ordezkarietan
azaroaren 29an	Egoitzan
abenduaren 11n	ALTSASUn

Batzorde eta egitasmoen koordinazio zerbitzua

Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen die kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagozkien Herri Administrazioakoei, behar diren txostenak prestatuz.

Herri Agintekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu, kudeatzailearekin batera.

Euskaltzaindiko Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua

Hauek izan dira aurtengoa egin diren lan nagusiak bai azpiegitura informatikoaren arloan bai eta Akademiaren egitasmoetan:



Egoitzan, Informatika Zerbitzua, 2007-I-15ean; ezkerretik eskuinera: Iñaki Kareaga eta Erlantz Aristegi.

- Hardware eta software ekipamendu berria ezartzea eta etengabeko hobekuntza.
- Euskaltzaindiaren argitalpenak digitalizatzeko egitasmoa (jarraipena).
- Ordutegi kontrolerako software tresnak ezartzea (jarraipena).
- Informatika zerbitzuaren erabiltzaileen eskarien kontrola informatizatzea.
- Hiztegitzinta lantalderako zuzenketa-eredu berriaren programa.
- Azkue Biblioteka. Funtsa digitalak biltegitratzeko NAS sistema berria ezartzea.
- Iparraldeko ordezkariaren bulego berriko telekomunikazio eta informatika azpiegitura ezartzea.
- Euskal Corpus Onomastikoa MySQL ingurunera migratzea.
- Joanes Etxeberri egitasmoaren eraketa fasean parte hartzea.
- Azkue Bibliotekaren azpiegitura informatikoa hobetzeko azterketa.
- IKT batzordearentzako lanak:
 - Euskaltzaindiaren Segurtasun Plana.
 - e-AEB zerbitzu elektronikoko berriaren prestakuntza.

Mantenu zerbitzuak

Martxotik aurrera da mantenu-intzidentzien Jarraipenetako zerbitzua sendotu da, egindako lana honela banatuz:

- Laguntza teknikoa erabiltzaileei, 783 zerbitzu (% 54,49).
- Instalazio, hobekuntza eta konfigurazio lanak, 222 zerbitzu (% 15,45).
- Matxurak eta ustekabekoak, 228 zerbitzu (% 15,87).
- Internet zerbitzuak, 123 zerbitzu (% 8,56).
- Informatika-segurtasuna, 81 zerbitzu (% 5,64).

Prentsa eta Komunikazio zerbitzua

Zerbitzu honek honako helburu hauek betetzen ditu: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko, gizarteak Akademiaren jardunaren berri izatea eta Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea.

Bestalde, euskaltzainen curriculumak egitea eta eguneratzea zerbitzu honi dagokio, webguneko albisteak gaurkotzearekin batera. Erakundearen hileroko barnerako informazio buletina, *Albiste Orria* deritzana egiten du Idazkariordearekin batera.

Plazaberri aldizkari digitala egiten du eta helburua honako hauxe da: Akademiari buruzko informazioa zabaltzea, hots, Euskaltzaindiak burutu edota burutuko dituen ekitaldi nagusien berri gizarteari ematea. *Plazaberri* Akademiaren webgunean eskaintzen da, bai eta posta elektronikoko bidez ere.

Aurten, hauek izan dira prentsa bulego honetatik bideratutako ekintza nagusiak Euskaltzaindiaren ekintzeei dagokienez:

- Otsailean, Bilbon, ageriko bilkura: hilberri-txostenak.
- Martxoan, Bilbon, *Ez dok amairu* erakusketa.
- Martxoan, Asteasun, Jose Irazu “Bernardo Atxaga” euskaltzainaren sarrera-hitzaldia.
- Martxoan, Donostian, Aurelia Arkotxa euskaltzain berriaren izendapena.
- Apirilean, Baionan, Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko ordezkari berria.
- Apirilean, Etxalarren, Teodoro Arburua eta Eusebio de Etxalar euskaltzain urgazleen omenezko ageriko bilkura.
- Ekainean, Donostian, Mikel Zalbide euskaltzainaren sarrera-hitzaldia.
- Uztailan, Bilbon, Sagrario Aleman eta Joseba Lakarra euskaltzain berrien izendapena.
- Uztailan, Donostian, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua-ren* 50. urteurrenari buruzko hitzaldi sorta, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeak prestatua.
- Irailean, Nafarroa Oinez 2007 dela eta, Vianan eginiko ekitaldiak. *Iruña al día* aldizkarirako; *Diario Vasco* egunkarirako; Miquel Gros-en liburuaz Radio Euskadi eta Eukalerrria irratia.
- Urrian, Donostian, Andoni Sagarna euskaltzainaren sarrera-hitzaldia.
- Azaroan, Bilbon, Joan Mari Torrealdai eta Miren Lourdes Oñederra euskaltzain berrien izendapena.
- Azaroan, Bilbon, XI. Jagon Jardunaldiak.
- Abenduan, Senperen, Gratien Adema “Zaldubi”ren omenezko ageriko bilkura

Aretoen erabilera

Egoitzako eta Gasteizko ordezkariaren aretoak kultura erakunde eta elkartei irekita egon dira euskararen inguruko gai, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekoetarako. Bilboko aretoan Bilbo Zaharra Forum elkarteak, besteak beste, honako ekitaldiak antolatu ditu: Jon Maiaren “Apesac hobeto” saioa, Maite Satrustegi eta Ana Txurrukaren hitzaldia, emakumeen Nazioarteko egunerako; Kirmen Uriberen hitzaldia; Josune Bereziartu eta Rikardo Oregiren hitzaldia; Joseba Zulaikaren hitzaldia; Josu Iztuetaren (“Nairobiarrak”) hitzaldia; Aitzpea Azkorbebeitia eta Gerardo Markuleta, “Sarri, Biba zu” saioa; Kandlepeko taldeak, ipuin kontalaritza.



Egoitzan, 2007-X-16an: ezkerretik eskuinera: Mertxe Mujika, Gotzon Lobera, Miren Dobaran eta Maria González

Horrez gain, honako erakuden eta elkarte hauek ere erabili dute aretoa: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak; Bilboko eta Ondarruko Udalek; IRALEK; Atenea, Elkar-Alberdania eta Tartalo argitaletxeek; Gabriel Aresti euskaltegiak; Bilboko “Ignazio Ellakuria”, Basauriko Urbi, Durangoko Fray Juan de Zumarraga, Amurrioko Zaraobek eta Markinako eta Txurdinagako B. H. Institutuek; Zurgai elkarteak; Bizkaiko Emakumeen Asanbladak; Topaguneak eta AEKk; Bizkaia Irratiak; Cadena SER-ek; Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak.

ORDEZKARITZAK

GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA

Euskaltzaindiaren bilerak Donostian

Ordezkaritza honetan Euskaltzaindiko Zuzendariatzak eta batzorde eta egitasmo ugari egin dituzten beren bilerak; urtean 46 bilera egin dira.

JAGONET kontsulta-zerbitzua

Jagonet kontsulta-zerbitzua Gipuzkoako ordezkartzan dago kokatuta eta bertatik erantzuten dira interneten bidez heltzen diren kontsultak.

Jendaurreko zerbitzuak

Ponte-izen edo deituren ziurtagiriak eskatzera eta kontsulta, argibide edo aholku eske hainbat hiritar hurbildu da Gipuzkoako ordezkariak. Eskaera horiek erantzun edo bideratu dira.

Jardunaldiak

Honako ekintza hauen antolaketa lanetan laguntza eman da:

- Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeak Euskal Herriko Unibertsitatearen Uda Ikastaroen barnean “*Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriaren ekarpena” jardunaldia, uztailaren 16, 17 eta 18an.
- *Euskararen Historia Soziala: metodologi eredu lantzeko lehen mintegia*. Miramongo Parke Teknologikoan, urriaren 15 eta 16an egin da.

Bestelakoak

Dokumentuak automatikoki ezagutzeko OCR deritzon programaren bidez iaz hasitako Euskaltzaindiaren argitalpenen digitalizazio lanari ekin zaio Gasteiz eta Iruñeko ordezkariarekin batera.

ARABAKO ORDEZKARITZA

Erakundearen azpiegiturari dagozkion eginkizunez kanpo, azpimarratu behar da Gasteizko Udalarekin sinatutako Hitzarmenari esker hiri honetan kokatua dagoela Gasteiz hiriko Toponimia egitasmoa eta horren inguruan sortu den lana. Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzutiak, hiriburuko Udaletik, beste herri batzuetatik eta banakako ikerlarien aldetik etorritako hainbat kontsultari erantzun zaie.

Hitzarmenaren ondorioz, 2006ko ekainetik 2007ko uztaila bitartean, egindako lanen errendapen txostena aurkeztu dio Akademiak Gasteizko Udalari. Hauek dira txosten horretan agertzen diren gai nagusiak:

- Euskaltzaindiak Gasteizen duen ordezkariak eman dituen zerbitzuak
- Gasteizko Toponimia lana
- Kasuan kasuko zerbitzuak
- Kontu-errendapena.

Horrez gain, 26 ponte-izen eta deituraren ziurtagiriak egin dira. Kontsulta, argibide edo aholku eske hurbildu diren hiritarrei ere erantzun zaie.

OCR programaren bidez iaz hasitako Euskaltzaindiaren argitalpenen digitalizazio lanari ekin zaio Donostia eta Iruñeko ordezkariarekin batera.

Bisitak

Lurralde honetako ikastetxe, institutu eta euskaltegitako 4 ikasle taldek bisitatu dute Euskaltzaindiaren ordezkariak hau, Akademiaren historia eta oraingo jardueren berri jasotzeko.

Ordezkapenak

Arabako ordezkariak herrialde honetan egin diren kultur ekitaldietan parte hartu du, I.7 atalean azaltzen den bezala.

Euskararen historia soziala egitasmoa (EHS)

Irailetik aurrera, proiektu honen aurrelanei ekin zaie Gasteiz eta Donostiako ordezkariartzetan. Urrian egin diren Metodologiari buruzko I. Jardunaldien antolaketa-lanetan parte hartu da eta baita dagozkion txostenak prestatzeko materialen biltze prozesuan ere. Horretarako, Gasteizko ordezkariartzetan honako argitalpen hauek digitalizatu eta landu dira:



Donostian, Miramongo Parke Teknologikoan, 2007-X-16an; aurrean, eserita, ezkerretik eskuinera: Björn Jernudd, Bernard Spolsky eta Colin Williams; atzean zutik, ezkerretik eskuinera: Iñaki Kareaga, Patxi Salaberri, Lionel Joly, Andres Iñigo, Maria Jose Azurmendi, Mikel Zalbide, Andres Urrutia, Joseba Intxausti, Juan Madariaga, Koldo Larrañaga, Nikolas Gardner eta Andoni Sagarna.

- Estornés, José: *Los Vascos y la Universidad*
- Azaola, José Miguel de: *Vasconia y su destino*, II. zenbakia
- Lacarra, Jose María: *Vasconia Medieval*
- Jimeno Jurio, Jose María: *Navarra. Historia del euskera*
- Jimeno Jurio, Jose María: *Causas del retroceso del euskara en el Valle de Allín*
- Batzuen artean: *Geografía histórica*
- Irigarai, Ángel: *Euskera eta Nafarroa*
- Moret, Joseph de: *Investigaciones Históricas de las Antigüedades del Reyno de Navarra*

- Unamuno, Miguel de: *Revista contemporanea 1901*
- Altube: *Euskera, 1933*, 299-397 or.
- Altube: *Euskera, 1936*, 1-192 or.
- Ordoñez, Joaquín: *Real Academia de la Historia. "Descripción de la ciudad de San Sebastián"*
- Larramendi, Manuel de: *Corografía de Guipúcoa*

NAFARROAKO ORDEZKARITZA

Ordezkaritza honetan Akademiaren azpiegiturak eskatzen dituen lanez gain, lan hauek azpimarra daitezke:

PDF sistemaren bidez egindako lanak

Dokumentuak automatikoki ezagutzeko sistema honen bidez, honako lan hauek egin dira aurten:

- *BBK* Sariak bildumako liburuei markatzaileak jarri.
- *Auspoa* bildumako liburuei markatzaileak jarri.
- *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarietako artikulak digitalizatu.

Bestelako lanak

- Iruñeko Udalarentzat 2006ko Memoria prestatu.
- Etxalarren Euskaltzaindiak egin dituen XV. Barne Jardunaldien prestaketan parte hartu.
- *Nafarroa Oinez 07* jaiaren inguruan egin diren Akademiaren bilerak prestatzen lagundu.

Ordezkapenak

- Nafarroako Udako Ikastaroen sarrera ekitaldian.
- Patxi Ondarrari omenaldia egin dio Bakaikuko herriak, bai eta bere izena paratzea erabaki bertako karrika bati ere. Ekitaldi horien arteko batean, A. Iñigok hitzaldi bat eman du P. Ondarrari buruz, eta bertan izan da S. Aleman euskaltzaina ere.

BAIONAKO ORDEZKARITZA

Bilkurak

Urtean zehar hilerok egiten dira ordezkaritza honetan kudeaketa-bilerak. Bestalde, maiatzaren 29an, Frantziako Estatuko Elkarte-legearen arabera bulegoan egin da urteko bilera nagusia, bertako euskaltzain oso eta urgazleek gain, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Xabier Kintana idazkariak eta Juanjo Zearreta kudeatzaileak parte hartu dutelarik. Iparraldeko euskaltzainak bildu dira uztailaren 24an eta azaroaren 6an, Onomastika batzordeak Iparraldeko toponimiaz egin dituen proposamenak aztertzeko eta dagozkien oharrak helarazteko. Horrez gain, ekainaren 22an Literatura Ikerketa batzordea bildu da Baionako ordezkartzan.

Ordezkaritza berria

Apirilaren 2an Iparraldeko ordezkaritza berria Baionako Gaztelu Berria deritzon jauregian inauguratu da. Euskaltzainez gain, kultura munduko eragileek parte hartu dute ekitaldian, besteak beste Daniel Landart -Euskal Kultur Erakundeko buruordeak-, Jean Grenet Baionako auzapezak eta, Max Brisson, Euskararen Erakunde Publikoko presidentek.



Baionan, ordezkartzan, 2007-IV-2an; ezkerretik eskuinera: Andres Iñigo, Emile Larre, Beñat Oihartzabal, Jean-Louis Davant, Henrike Knörr, Andres Urrutia, Xabier Kintana, Jean Haritschelhar, Jose Luis Lizundia, Zoe Bray eta Pierre Charritton.

Ordezkaritzara bisita

Urriaren 18an, Baionako Bernat Etxepare lizeoko Terminaleko ikasleek Erakundearen bulegoak bisitatu dituzte eta ordezkartza berria ikusi ondoren, Euskaltzaindiak egiten dituen lanen eta argitalpenen berri jaso dute.

D Mailako Hizkuntza Gaitasun Agiria

Agiri hau eskuratzeko ekainaren 2an eta 16an egin dira lehen deialdiko probak eta, urriaren 13an eta 20an, udazkenekoak. Denetara, 67k gainditu dituzte azterketak.

Diru-laguntzak

Euskal Erakunde Publikoak lagundu du Euskaltzaindia 2007. urtean. Horrez gainera hiru enpresak (Aiherrako *Lauak*, Hendaiako *Sallaberry* garraoiak eta *Sokoa* lantegia) eta 28 udalek ere diruz lagundu dute Euskaltzaindia.

III.2. AZKUE BIBLIOTEKA

III.2.1. EGITASMOAK ETA ZERBITZUAK

*Eusker*a agerkariaren kontsulta-tresna berria

Informatika zerbitzuarekin elkarlanean gauzatu den egitasmoa, urtarrilean bukatu da eta Euskaltzaindiaren web gunean paratu.

Digitalizazioak

- **Euskaltzaindiaren argitalpenen digitalizazioa.** Euskaltzaindiaren argitalpen guztiak digitalizatu dira.
- **Auspoa bildumaren digitalizazioa.** Auspoa bilduma osoa digitalizatu da.
- **Eusko Legebiltzarreko liburu digitalizatuak.** Bilduma horren kopia digital bat bere sasoiari Legebiltzarrak Euskaltzaindiari oparitu zion, baina ARCHIDOC programaren bidez irakurtzeko. Guztiak PDF formatorra pasatu dira, gure bibliotekako gainerako dokumentu digitalak bezala.

Zerbitzu orokorrak

Aurten 2.209 sarrera berri egin dira katalogoan eta 2.732 ale berri sartu dira bibliotekan. Halaber, posta elektronikoko bidezko 165 galdera edo eskariri erantzun zaie eta 86 irudi digitalizatu dira.



Egoitzan, 2007-IX-28an: ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Arana Martija eta Andres Urrutia.

- **Jose Antonio Aranaren biblioteka katalogatu.** Urriari abiatu dadohaintza honen katalogazioa.

- **Bibliotekan barneratu ez diren liburuak eta aldizkariak.** Biblioteka osorik katalogatu zenean liburu multzo bat osatu zen katalogoz kanpo geratutakoekin (birritakoak edo interes gutxikoak bibliotekaren helburuetarako). Pasa den urtean onartu zen txostenean esandakoa gauzatu da: liburu guztiak zerrendatu eta erakundearen kideen artean banatu dira.

- **Artxiboko irudi digitalak kudeatzea.** Artxiboko digitalizazioetan zenbait irudi akastun detektatu ziren eta horiek berregin dira.

- **Artxibo Administratiboa.** Dokumentazio administratibo guztia aztertu da, funtsak berrantolatuz eta gidak erreparatuz. Halaber, hainbat programa informatiko eta artxiboren funtzionamendua aztertu da informatika zerbitzuarekin batera.

- **Ondare digitalaren babes kopia.** Digitalizatutako liburu eta artxibo-dokumentu guztien formatoak homogeneizatu dira eta ordenagailu berri batean (NAS) babes kopia bat egin zaie. Halaber, jarraibide berriak zehaztu dira edozein dokumenturen digitalizazio, kontsulta, kopia eta kontserbazioarako.


- **Azkue Bibliotekako Irudiak (ABI) egitasmoa.** Digitalizatutako irudi guztien fitxak zuzentzeari ekin zaio.

- **Azkue Bibliotekako Dosierrak (ABD) egitasmoa.** Dosier guztien fitxak aplikazio informatiko berriari ezarri eta zuzendu dira.

- **Etxebarriko gordailua.** Aurrera darrai Etxebarriko gordailuaren berrantolaketak. Aurten han dauden material guztien inbentario orokorra egin da, guztiei kokapen berriak eta behin-betikoak esleituz.

- **Bonaparte ondarearen hustuketa.** Bonaparte printzearen euskal idazlanen identifikazio bibliografikoa errazteko haren bi bilduma handien katalogazio analitikoak egin da.

- **Leizarragaren biblia erostea.** Londresko Sotheby's etxeak enkantean jarri du Leizarragaren bibliaren ale bat eta Euskaltzaindiak 2007ko azaroaren 28an erosi du.



3.II.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Euskal idazle eta idazlan klasikoen kanona

Egitasmo horri *EKA (Euskal Klasikoen Autoritateak)* izena ematea erabaki da, eta bi erabaki-mota hartu:

- a) Egitasmoaren beraren oinarri, ezaugarri eta helburuei buruzko hausnarketak eta eztabaidak izan dira, ildo nagusietan finkatuta geratu direlarik.
- b) Bi zerrenda aurkeztu dira eta egileak eta lanak banan-banan eztabaidatu eta onartu dira.

Bergarako Olaso Dorreko Sorrerakundea

Erakunde horrek eta Euskaltzaindiak aspaldi-aspalditik hasia duten elkarlanari segida emanez, Olaso Dorreko Sorrerakundeko ordezkariak Euskaltzaindia bisitatu dute, Jose Luis Elkoro eta Ramon Mendibil jaunek, Azkue Biblioteka batzordearekin eta Zuzendaritzako kideekin bilduz. Orain arte elkarrekin egindako bide beretik segitzeko borondatea erakutsi dute bi erakundeek. Batzordeak oniritzia eman dio Euskaltzaindiak erakunde honekin sinatu nahi duen hitzarmenari.

Zenbait txosten onartu

Euskaltzaindiaren Artxibo Administratiboa taxutzeaz

Txosten hau batzordeak iaz erabakitakoari segituz osatu da eta bertan azpimarratzen da erakundearen artxibo administratiboa taxutzeari ekiteak lehentasun nagusia izan behar duela.

Azkue Biblioteka: 2007ko lan plangintzaz

Txosten honetan jasotzen da Azkue Bibliotekak 2007an egin beharreko lan guztien deskribapena, eskari arruntetatik kanpora. Batzordeak guztiei buruzko informazioa jaso, eztabaidatu eta bakoitzari dagokion moduan onartu ditu.

Piarres Lafitteren artxiboaz

Artxibo horren taxuketa eta digitalizazio-lanak ustekabean etorri dira Azkue Bibliotekara, ez baitzeuden urteko plangintzan aurreikusita. Batzordeari informazio zehatza eman zaio artxibo horren izaeraz, egin beharreko lanaz eta haien zehazteko prozedurez eta arrazoiez. Hausnarketaren ondoren batzordeak erabaki du ontzat ematea egindako proposamen guztiak.

III.3. ARGITALPENAK

III.3.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Batzordearen eta Argitalpen Eragilearen gidaritzapean argitalpen hauek bideratu dira 2007. urtean:

1. *Euskera*, 2006, 2

Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki, irizpen, sari, argitalpen eta adierazpenez gain, hauek dira berariazko gaiak: Ana Toledo eta Patxi Salaberri euskaltzainen sarrera-hitzaldiak; Nafarroa Oinez; R. M. Azkue Ikastola (orain Lauro) legeztazu zeneko 40. urteurrena; X. Jagon Jardunaldiak; hilberri-txostenak: Federico Barrenengoa, Gaizka Barandiaran eta Jose Mari Etxaburu "Kamiñazpi". 738 orrialde.

2. *Euskera*, 2007, 1

Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki, irizpen, sari, argitalpen eta adierazpenez gain, hauek dira berariazko gaiak: Jose Irazu "Bernardo Atxaga" eta Mikel Zalbide euskaltzainen sarrera-ekitaldiak; Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardunaldiak; Teodoro Arburua eta Eusebio de Etxalar euskaltzain ugazleen omenezko bilkura; Uharten, Nafarroako Gobernuarekin batera "Euskalkiak eta komunikabideak" izeneko jardunaldiak; Iparraldeko ordezkari-tza berriaren inaugurazioa eta "Ez dok amairu" erakusteka. 530 orrialde.

3. *Euskaltzaindiaren 2006ko Oroitidazkia*

Euskaltzaindiak 2006an egin zituen lanen berri ematen duen txostena da. Ez da ohiko liburu bezala argitaratu, hau da, paperezko argitalpen bezala. Interneten jarri da, Euskaltzaindiaren web gunean (www.euskaltzaindia.net helbidean). 86 orrialde. Beste hizkuntzetan ere jarri da (gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez), modu berean jokaturik.

4. *Euskaltzaindiaren ARAUAK*

Arau hauek argitaratu ditu Euskaltzaindiak 2007an:

- 38. arau zuzendu eta eguneratua: "Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritaren izenak".
- 149. Euskal Herri inguruko exonimoak
- 150. Arabako Herri Izendegia
- 151. Espainia-Frantzietako eskualdeen izenak.

5. *Luzaideko Euskararen Hiztegia*

Peio Kaminok eta Patxi Salaberrik egina. Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak sorturiko *Mendaur* bildumaren hirugarren liburukia, eta erakunde biek elkarrekin sinatua duten hitzarmenaren babesean argitaratua. 206 orrialde.

6. Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia

Orreaga Ibarra Murillok paratua. Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak sorturiko *Mendaur* bildumaren laugarren liburukia. 280 orrialde.



Iruñean, 2007-X-24an: ezkerretik eskuinera: Orreaga Ibarra, Andres Urrutia, Carlos Pérez Nievas, Patxi Salaberri eta Peio Camino.

7. Arkitektoa

Txema Garcia-Viana. 2006ko Txomin Agirre eleberri-sariaren irabazlea. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera Euskaltzaindiak argitaratua. 136 orrialde.

8. Joanes (itxaropenaren semea)

Alaitz Olaizola. 2006ko Toribio Alzaga antzerki-sariaren irabazlea. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera Euskaltzaindiak argitaratua. 84 orrialde.

9. Zirrikituak

Aintzane Galardi. 2006ko Felipe Arrese Beitia olerki-sariaren irabazlea. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera Euskaltzaindiak argitaratua. 102 orrialde.

10. Herri maitea, Herri dorpea

Sebastian Gartzia Trujillo. 2006ko Mikel Zarate saio-sariaren irabazlea. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera Euskaltzaindiak argitaratua. 914 orrialde.

11. Narrazioak eta olerkiak 2006

2006ko Azkue sariak irabazitako narrazioak eta olerkiak batzen dira liburu horretan. Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero deitzen dute. 92 orrialde.

12. *Recuperación del Euskera en Navarra*

Miquel Gros i Lladósek idatzi du *Recuperación del Euskera en Navarra* izeneko liburua eta Euskaltzaindiaren Jagon bildumaren 4. liburukia da. 250 orrialde.

13. *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz*

Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren Sustapen batzordeak paratu du *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz* liburua eta Euskaltzaindiaren Jagon bildumaren 5. liburua da. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzaz argitaratu da. 156 orrialde.

14. *Gratien Adema Zaldubi, saildu batzuen biziaz*

Henri Duhauk paratu duen *Gratien Adema, "Zaldubi", saildu batzuen biziaz* liburua Euskaltzaindiaren "Euskaltzainak" izeneko bildumaren 1. liburua da. "Euskaltzainak" bilduma sortu berri du Akademiak eta bertan euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko ditu Akademiak. 294 orrialde.



Senperen, 2007-XII-21ean; ezkerretik eskuinera: Henri Duhau eta Andres Urrutia.

15. *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*

Amelia Hernández Mata andreak paratua da, eta Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmenaren babesean koedizioan argitaratua. 452 orrialde.

III.3.2. ARGITALPEN SALMENTA ZERBITZUA

Euskaltzaindiak argitalpenen hedapen-salmenta banatzaileen bitartez egiten du gehienbat. Hala ere, *Euskaltzaindiaren Arauak* eta *Euskera* agerkariaren kasuetan, harpidetza sistema erabiltzen du eta, ondorioz argitalpen zerbitzuaren bezeroekiko harremana zuzenagoa izaten da.

Euskaltzaindiaren Arauen harpidedunak 2007ko urte bukaeran 1.652 izan dira eta *Euskera* agerkariarenak, berriz, 265. Gainerako argitalpenei dagokienez, liburu-dendei zuzenean 73 ale saldu zaizkie, banatzaileei 1.033 eta gizabanako eta erakunde desberdinei, 615. Argitalpenik salduenak, *Euskera* 2000, 2 (*Hiztegi Batua*), *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus bakuna* eta *Jagon 4: Recuperación del euskera en Navarra* izan dira. Trukezko harremanetan 750 ale inguru banatu dira.

Azokak

Azaroaren 21etik 25era, Euskaltzaindiaren argitalpen zerbitzua Bartzelonan, *Saló del Llibre 2007* Liburu Azokan izan da Institut d'Estudis Catalans eta Consello de Cultura Galegarekin batera.

Abenduaren 5etik 9ra egin da Durangon Euskal Liburu eta Disko Azokaren 41. edizioa. Beti legez, bertan izan da Euskaltzaindia azken argitalpenak aurkeztu eta bisitariei behar adina informazio eta argibide emanaz. Aurten, eta arestian aipatu den elkarlanaren ondorioz, Institut d'Estudis Catalans-eko argitalpenak ere Durangon izan dira.

Saran izaten den Euskal Idazleen Biltzarrean ere izan da Akademia. Euskal Herrian egin diren beste zenbait liburu eta disko azokatan, zuzenean joan ez arren, Akademiaren argitalpenak banatzaileen bitartez eraman dira.



Bartzelonan, 2007-XI-22an: ezkerretik eskuinera: Jon Artza, Joan Martí i Castell eta Ricardo Badiola.

IV. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK

IV. 1. EUSKO JAURLARITZA ETA HIRU DIPUTAZIOAK

Bost urterako hitzarmena

2005eko urriaren 7tik, Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Euskaltzaindiak bost urterako hitzarmena sinatua dute. Dokumentu horren xede nagusiak hauek dira: alde batetik, Euskaltzaindiaren eta Eusko Jaurlaritza, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako foru aldundien arteko lankidetzarako oinarriak finkatzea; eta, beste alde batetik, Euskaltzaindiaren etorkizuneko jarduna bermatzeko, alderdi bakoitzak bereganatzen dituen konpromiso materialen zein finantzamenduaren arloan esparrua arautzea. Hitzarmen horren bitartez, Euskaltzaindiaren gastu arrunta eta, oro har, jarduera akademikoa, ziurtatu dira.

Errendapen txostenak

Herri Agintekin sinatutako Hitzarmenaren arabera, egitasmo eta batzorde akademikoen lanen errendapen-txostenak bidaltzen dizkie Euskaltzaindiak Herri Administrazioei. 2007. urteari dagokionez, errendapen txosten hauek igorri zaizkie EAEko Herri Administrazioei: otsailean, 2006ko bigarren urte-erdikoak eta, urrian, 2007ko lehen urte-erdikoak. Txosten horietan, batzorde, egitasmo eta lantalde hauen lana jaso da: Euskaltzaindiaren Hiztegia, Hiztegi Batua, UZEI: Hiztegi Batua eta EEBS, Gramatika, Euskararen Herri Hizkeren Atlas, Onomastika, Exonomastika, Herri Literatura, Literatura Ikerketa, Euskara Batua, Corpus, Sustapen, Azkue Biblioteka eta Argitalpen batzordeak.

Jarraipen Batzordea

Azaroaren 6an bildu da Euskal Autonomia Erkidegoko Jarraipen Batzordea, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, Gasteizen. Herri Aginteen izenean hauek bildu dira: Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua; Miren Dobaran, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria; Nagore Dorronsoro, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria; Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendaria; Estibaliz Alkorta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararako zuzendari nagusia; eta Agustín Otsoa, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria. Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andres Iñigo Jagon sailburua eta Juan Jose Zearreta kudeatzailea izan dira.

Hauek izan dira bilerako gaiak: 2006. urteko diru-laguntzak, 2007ko aurrekontu eta diru-laguntzak, 2008. urterako aurrekontuak eta egitasmoak eta Batzorde Teknikoan izandako aldaketak.

IV. 2. NAFARROAKO GOBERNUA

2007ko Protokoloa sinatzea

Apirilaren 16an sinatu da Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Hitzarmeneko 2007ko Protokoloa. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak izenpetu du eta, Foru Gobernuaren izenean, Pedro Pegenaute Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak.

Akordio horren arabera, hauek dira 2007. urteko eginkizun nagusiak:

- Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) egiteko bildu ziren Nafarroako 3 herritako (Beruete, Donamaria eta Goizueta) grabazioak euskarritan paratu eta ematea.
- *Diario de Navarra* egunkariaren digitalizazio lanak.
- Zenbait argitalpenen prestaketa, horien artean *Principe de Viana (Nafar euskaltzainen ekarpenak)*, eta Edu Zelaietaren *Baztan-Bidasoa hizkeren azterketa dialektologikoa*.
- Hizkuntza kudeaketaren kolaborazio sistemak aztertzekeo jardunaldiak egitea.
- Euskal Corpus Onomastikoa: Nafarroari dagozkion lanei jarraipena ematea.



Iruñean, 2007-X-24an: ezkerretik eskuinera: Miguel Sanz, Carlos Pérez Nieves, Henrike Knörr, Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia eta Andres Iñigo.

Jarraipen Batzordea

Abenduaren 11n egin da Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmeneko Jarraipen Batzordearen bilera, Iruñeko Hezkuntza Sailaren egoitzan, honako hauek parte hartu dutelarik: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo eta Juanjo Zearreta; Gobernuarenean, Carlos Pérez Nieves, Julen Calvo eta Adoración López. Gai nagusiak hauek izan dira: 2007ko eginkizunen jarraipena egitea eta 2008. urterako eginkizunak adostea.

Batzorde Teknikoa

Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmeneko Batzorde Teknikoa hiru aldiz bildu da: urtarrilaren 31n, irailaren 10ean eta abenduaren 4an. Nafarroako Gobernuaren izenean hauek izan dira: Adoración López, Mikel Arregi, Iñaki Ayesa eta Julen Calvo; Euskaltzaindiarenean, Juan Jose Zearreta eta Pello Telleria. Bilera horietako gai nagusiak hauek izan dira: 2006ko lanen jarraipena egitea eta 2007ko eginkizunen egoera aztertzea.

IV. 3. ESTATU ADMINISTRAZIOA

Espainiako Administrazio Zentraleko Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren Unibertsitate eta Ikerketarako Estatu Idazkaritzan dago ofizialki kokatua Euskaltzaindia. Hizkuntza Akademientzako aurrekontu orokor bat dauka Ministerioak, nondik gauzatzen den gure Akademiarentzako diru-laguntza, Espainiako, Galiziako eta Kataluniako erakundeetako kideekin batera.

Cervantes Institutua

2005eko uztailaren 28an, Euskaltzaindiak eta Cervantes Institutuak lehendabiziko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, egoitzan. Hitzarmen honen xedeari jarraituz, euskal hizkuntza eta kultura bultzatuko dute bi erakundeek, batez ere Euskal Herriatik kanpora eta Instituto Cervantes-en zentroen bitartez.



Lyonen, Cervantes Institutuaren egoitzan, 2007-IV-12an; ezkerretik eskuinera: Amelia Esteban, Jon Kortazar eta Henrike Knörr.

Apirilaren 12an, Instituto Cervantes-ek Lyon-en duen etxeko liburutegiari *Gabriel Aresti* izena jarri dio eta Jose Luis Lizundia diruzaina joan da ekitaldi horretara Euskaltzaindiaren izenean. Henrike Knörr Iker sailburua ere joan da eta euskal kulturari buruzko hitzaldia egin du. Jon Kortazar euskaltzain urgazlea Arestiren poesiaz mintzatu da.

IV. 4. IPARRALDEKO HERRI AGINTEAK

Herri Aginteek 2000. urtean egindako Euskal Herriko Hitzarmen Berezian, Euskaltzaindiari euskararen ikerketan duen zeregina aitortzen zitzaion eta, ondorioz, administrazio desberdinek beren laguntzak eman izan dizkiote Euskaltzaindiari.

2005. urteaz geroztik, Euskal Herriko Hitzarmen Bereziari esker Herri aginteek Euskaltzaindiari ematen dizkioten diru-laguntzak Euskararen Erakunde Publikoak kudeatzen ditu. Beraz, Frantziako Gobernuaren, Akitania Lurraldeko Kontseiluaren eta Pirinio Atlantikoaren diru-laguntzak Euskararen Erakunde Publikoak ematen dizkio Euskaltzaindiari. Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2006ko ekainaren 2an sinatu zuten Hitzarmena eta 2007an ere indarrean egon da.

Frantziako Institutu Geografiko Nazionala

Euskaltzaindiak 2006tik dauka hitzarmena Institutu Geografiko Nazionalarekin, Ipar Euskal Herriko euskal toponimia zehazteko eta finkatzeko.

IV. 5. UDALAK

EUDEL

2004ko otsailaren 27an, Euskaltzaindiak eta EUDELek hitzarmena sinatu zuten toki erakundeei laguntza teknikoa emateko, izen toponimikoen arloan. Hitzarmen honen xedeari jarraituz, bi erakundek aholkularitza ematen diete toki-entitateei, lekurik esanguratsuenen izen toponimikoen inguruan hartu beharreko erabakietan.

Donostia

Xalbador bertsolaria kalean, Donostiako Udalak duen eraikuntza bat erabiltzen du Euskaltzaindiak, 2001etik, egitasmo akademikoetarako. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren lantaldeak jardun du hor lanean.

Gasteiz

Abenduaren 3an, Euskaltzaindiak eta Gasteizko Udalak urtebeteko iraupena izango duen hitzarmena sinatu dute. Udalaren izenean Patxi Lazcoz alkateak sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmen horren arabera, udal-barruti osoaren herriz herriko toponimiaren ikerketa eta hiriburu horretako ordezkartzan ematen diren hizkuntza-zerbitzuak babesten ditu Udalak. Hitzarmenaren ondorioz, hauek dira eginkizun nagusiak: hizkuntza aholkularitza, Gasteizko euskarari buruzko azterlanak eta zenbait argitalpenen prestaketa.

Iruñea

Abenduaren 11n, 2007ko hitzarmena sinatu dute Iruñeko Udalak eta Euskaltzaindiak. Udalaren izenean, Paz Prieto Sáenz de Tejada Kultura alorreko

zinegotzi delegatuak eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute.

Tolosako Udala

2007an argitaratu da *Tolosako Leku Izenak* liburua, herriko toponimia jasotzen duena. Lan hau 2004an hasi zen, orduan sinatu baitzuten lankidetzak hitzarmena Tolosako Udalak eta Euskaltzaindiak. Hitzarmen horren xedea honako hau da: “Tolosako Leku Izenak” deituriko lana sistematizatzea, azalpen-testuak lantzea, material grafikoa hautatzea eta maketatzea.

Santurtziko Udala

2006an Euskaltzaindiak eta Santurtziko Udalak Andolin Eguzkitza idazle, hizkuntzalari eta euskaltzain zenaren lanak katalogatzeko hitzarmena sinatu zuten. Akordio horren arabera, Eguzkitzak utzitako liburuen bilduma zabala eta idatzi propioak katalogatzeko ardura hartu zuen Euskaltzaindiak. Lana 2007an burutu da.

Erandioko Udala

2006an lankidetzak hitzarmen sinatu zuten Erandioko Udalak eta Euskaltzaindiak. Hitzarmen horren helburua Erandioko toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea zen. 2007an amaitu da lana.

Zornotzako Udala

2006ko maiatzean lankidetzak hitzarmena sinatu zuten Zornotzako Udalak eta Euskaltzaindiak. Hitzarmen horren xedea honako hau da: Zornotzako toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea. Lanak aurrera darrai.

Azkoitiko Udala

Azkoitiko Udalak eta Euskaltzaindiak Azkoitiko toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzeko hitzarmena sinatu zuten 2006an. Eñaut Frantsesena ikertzailea aritu da lanean, Akademiaren gidaritzapean.

Oiartzungo Udala

Oiartzungo toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea xede duen lankidetzak hitzarmena sinatu zuten Oiartzungo Udalak eta Euskaltzaindiak 2006ko abenduan. Hitzarmen horren arabera, Euskaltzaindiaren eginkizunik nagusia izango da toponimia bildu, finkatu, arautu eta normalizatzeari buruzko aholkuak eta irizpenak eskaintzea. Era berean, Akademiari dagozkio ikerketaren zuzendaritza eta aholkularitza zereginak. 2007an ekin zaio lanari.

Ordiziako Udala

2007ko uztailaren 13an, lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Ordiziako Udalak eta Euskaltzaindiak. Udalaren izenean Jose Miguel Santamaria alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Iñigo Onomastika batzordeburuak sinatu dute. Hitzarmen horren xedea Ordiziako toponimoak eta herriaren ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea da.



Azkoitian, 2007-VII-13an; ezkerretik eskuinera: Jose Miguel Santamaria eta Andres Iñigo.

Ordiziako toponimia ikertzeko beka-deialdia atera du Udalak. Ainitze Etxaniz eta Irati Zaldia ikerlariek eskuratu dute beka hori eta Euskaltzaindiko Onomastika batzordearen gidaritzapean aritu dira lanean.

IV. 6. UNIBERTSITATEAK

IV. 6. 1. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanari esker, Aurelia Hernandez Mataren doktorego tesia argitaratu dute bi erakundeek. Lan horren izenburua hau da: *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920 – 1944). Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan.*

IV. 6. 2. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatua dute, 2003ko abendutik, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basean (*Inguma*) lankidetzan jarduteko.

2007an, Euskaltzaindiko lan hauek katalogatu dira *Ingumaren* datu basean:

- *Euskera* agerkariaren 2006ko zenbaki biak (51.1 eta 51.2)
- *Euskera* agerkariaren 1.058 artikuluren sareko estekak (1971-2005 bitartean argitaratutako artikuluen loturak)
- 2006an argitaratutako liburuak

IV. 6. 3 DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Euskaltzaindiaren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko lankidetzaz hitzarmena indarrean dago 2001etik. Horren barnean, 2007. urteari dagokionez, *Deiker* Unibertsitate horretako Ikerkuntzaren Sustapenerako Institutuarekin batera, Toponimia arloko gaiak landu dira.

IV. 7. EUSKALTEL

2002. urtetik, Euskaltel enpresak eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatua dute. Hitzarmen horren bidez, Euskaltelek JAGONET zerbitzuarentzako diru-laguntza eman dio Euskaltzaindiari eta Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoko datutegia dauka bere ordenagailuetan (www.euskaracorpora.net) horren kostua bere gain hartuz.

IV. 8. EiTB

Urtarrilaren 23an, hiru urteko iraupena izango duen lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Andoni Ortuzar Euskal Irrati Telebista (EiTB) erakundeko zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak, EiTBren Iurretako egoitzan. Hitzarmen horren bidez, EiTBko hedabideetan euskararen erabilera egokia sustatuko da, euskal gizartean euskara normalizatzeko eta bultzatzeko helburuarekin. Ekitaldian halaber, Jose Luis Lizundia diruzainak eta Julian Beloki EiTB Irratiko zuzendari koordinatzaileak parte hartu dute. Jarraipen Batzordean Diruzaina eta Idazkariordea izango dira Euskaltzaindiaren ordezkariak.



Iurretan, 2007-I-23an; ezkerretik eskuinera: Julian Beloki, Andoni Ortuzar, Andres Urrutia eta Jose Luis Lizundia.

IV. 9. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eta Euskaltzaindiak lehendabiziko lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten, 2004an. Bost urteko iraupena duen hitzarmen horrek, bi erakundeen arteko loturak sendotzea du helburu, elkarren aitorpenetik abiatuz.

IV. 10. TOPAGUNEA

2005ean Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak eta Euskaltzaindiak lehendabiziko lankidetzeta-hitzarmena -bost urteko iraupena izango duena- sinatu zuten, Euskaltzaindiaren egoitzan. Hitzarmen horren ondorioz, bi erakundeok elkarlanean arituko dira, euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan, baita Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak eta egindako gomendioak zabaltzeko ere.

IV. 11. FEVE

2005etik FEVEk (*Ferrocarriles de Vía Estrecha* delakoak) eta Euskaltzaindiak lehendabiziko lankidetzeta-hitzarmena sinatua dute. Hitzarmen horrek, hizkuntzaren normalizazioa du helburu. Horren bidez, tren-geltokien izenak edota trenbideko euskarazko testu guztiak modu egokian jartzeko laguntza ematen dio Euskaltzaindiak FEVEri. Pello Telleria idazkariordea eta Mikel Gorrotxategi Onomastika Zerbitzuaren arduraduna dira hitzarmen horren Jarraipen Batzordeko Euskaltzaindiaren ordezkariak. Urtean zehar, FEVEko ordezkariak eskatu duten laguntza guztia eman zaio enpresa horri, geltoki-izenetan eta hiritarrekiko idatzizko harremani buruzko ohar eta txarteletan. Besteak beste, bidaia-txartelez, treni buruzko oharrez eta ibilbide berezi bati buruzko egitarauaz.

IV. 12. BIZKAIA IRRATIA

2006. urtetik, Bizkaia Irratiak eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena sinatua dute. Hauek dira hitzarmen horren ildo nagusiak: Bizkaia Irratiak eta Euskaltzaindiak elkarri euren ikerketa-ondareak erabiltzeko aukera emango diote eta, bereziki euren artxibategi, fonoteka eta bibliotekak erabiltzeko aukera; Euskaltzaindiak erantzuna emango die Bizkaia Irratiak egindako kontsultei; irratigintzaren arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako programak sustatuko dira; erakunde biok elkarlanean arituko dira, euren biblioteketako eta fonoteketako euskal funtsak sendotzeko; horretarako, euren argitalpen funtsetatik zenbait lan ekarriko dituzte.

IV. 13. EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA (EKT)

2006tik Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKT) eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena sinatua dute. Hitzarmen horrek, euskara eta euskal kultura zabaltzea du helburu.

IV. 14. LABAYRU EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

2006ko urriaren 26tik, Labayru Euskal Kultur Erakundeak eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena sinatua dute, Akademiaren egoitzan. Hitzarmen horrek, euskara eta euskal kultura zabaltzea du helburu. Hauek dira hitzarmen horren ildo nagusiak: bi erakundeok lankidetzeta-proiektu zehatzak bideratu eta garatuko dituzte, euskararen eta euskal kulturaren inguruko irakaskuntza, ikerketa eta pedagogiaren eremuan; bi erakunde horiek elkarri euren irakaskuntza- eta ikerketa-ondareak erabiltzeko aukera emango diote, eta, bereziki, euren artxibategi eta bibliotekak erabiltzeko aukera; argitalpenen arloan elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira, irakaskuntza normalizazioaren eremuan, euskarazko testuak edo ikerketa- nahiz zabalkunde-lanak batera kaleratzeko; lankidetzeta politika bultzatuko dute ikastaroak eta programak sortu eta egin daitezen, euskarari eta euskal kulturari dagozkien eremuetan.

IV. 15. ELHUYAR FUNDAZIOA

Martxoaren 16an, Elhuyar Fundazioaren egoitzan, elkarlanerako hitzarmena eta 2007ko protokoloa sinatu dituzte Euskaltzaindiak eta Elhuyar Fundazioak. Fundazioaren izenean Jose Mari Rodríguez Ibabe Elhuyar Fundazioko lehendakariak sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmenak hiru urteko iraupena izango du. Sinatze-ekitaldiaren aurretik, Elhuyarrek bere jardunaren berri zehatza eman die Euskaltzaindikoko kideei, batez ere hizkuntza-zerbitzu eta teknologien arloan. Elhuyar Fundazioaren izenean hauek izan dira: Jose Mari Rodríguez-Ibabe lehendakaria; Itziar Nogeras zuzendari nagusia; Josu Waliño proiektu-zuzendaria; Josu Aztiria Hizkuntza Zerbitzuak saileko arduraduna; Antton Gurrutxaga eta Alfontso Mujika Etxeberria, Hizkuntza Zerbitzuak saileko kideak; Olatz Estensoro, Elhuyar Aholkularitzako kidea; Ibon Aizpurua, Eleka Ingeniaritza Linguistikoko kidea. Euskaltzaindiaren izenean hauek izan dira: Andres Urrutia, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo, Pello Telleria eta Amaia Okariz.



Usurbilen, 2007-III-16an; ezkerretik eskuinera: Josu Aztiria, Josu Waliño, Jose Mari Rodríguez Ibabe, Itziar Nogeras, Antton Gurrutxaga, Olatz Estensoro, Jose Luis Lizundia, Andres Urrutia, Lurdes Ansa, Xabier Kintana, Alfontso Mujika, Andres Iñigo, Ibon Aizpurua eta Pello Telleria.

V. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia

V.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak

V.2. Hitzarmenak

V.3. Batzordeen zerrendak

V.4. Aurkitegia

V.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUDUNEN ZERRENDAK

EUSKALTZAIN OSOAK

Sagrario Aleman
Jose Antonio Arana Martija (emeritua)
Adolfo Arejita
Aurelia Arkotxa
Miren Azkarate
Pierre Charritton (emeritua)
Jean-Louis Davant
Xabier Diharce “Iratzeder” (emeritua)
Patxi Goenaga
Jean Haritschelhar (emeritua)
Andres Iñigo
Jose Irazu “Bernardo Atxaga”
Xabier Kintana
Henrike Knörr
Joseba Lakarra
Emile Larre (emeritua)
Jose Luis Lizundia
Beñat Oihartzabal
Miren Lourdes Oñederra
Txomin Peillen (emeritua)
Andoni Sagarna
Patxi Salaberri
Pello Salaburu
Ibon Sarasola
Ana Toledo
Joan Mari Torreal dai
Andres Urrutia
Patxi Zabaleta
Mikel Zalbide
Antonio Zavala (emeritua)

ZUZENDARITZA

Andres Urrutia, euskaltzainburua
Beñat Oihartzabal, buruordea
Xabier Kintana, idazkaria
Jose Luis Lizundia, diruzaina
Henrike Knörr, Iker sailburua
Andres Iñigo, Jagon sailburua

ORDEZKARIAK

Gipuzkoa: Ana Toledo
Araba: Henrike Knörr; ordezkariordea: Manu Ruiz Urrestarazu
Nafarroa: Andres Iñigo
Iparraldea: Beñat Oihartzabal
Baionako bulegoaren arduraduna: Pierre Charritton

ERAGILEAK

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea
Pello Telleria, idazkariordea
Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea
Prudentzio Gartzia, Bibliotekako zuzendaria

V.2. HITZARMENAK

Euskaltzaindiak zenbait erakunderekin sinatuak dituen hitzarmenen berri ematen da ondoren, eta zein diren Akademiaren ordezkariak.

Erakundea	Ordezkaria(k)
Bizkaia Irratia	Jose Luis Lizundia, Adolfo Arejita
Deustuko Unibertsitatea	Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia
Elhuyar fundazioa	
EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte)	Diruzaina, Idazkariordea
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo eta Jon Aurre
Euskal Herriko Unibertsitatea	Euskaltzainburua, Idazkaria, Diruzaina
Euskal Irrati Telebista (EiTB)	Jose Luis Lizundia, Pello Telleria
Euskararen Erakunde Publikoa (EEP)	
Euskarazko Komunikazio Taldea, S. A.	Andres Urrutia eta Ana Toledo
Eusko Jaurlaritza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioak	Burua, Idazkaria, Diruzaina, <i>Iker</i> eta <i>Jagon</i> sailburuak
FEVE	Pello Telleria eta Mikel Gorrotxategi
Gasteizko Udala	Arabako ordezkaria
Instituto Cervantes	Idazkaria, Diruzaina eta <i>Iker</i> sailburua
Labayru euskal kulturaren erakundea	
Nafarroako Gobernua	Burua, Idazkaria, Diruzaina, Nafarroako ordezkaria
Topagunea	Idazkaria eta Diruzaina
Udako Euskal Unibertsitatea	Euskaltzainburua
UZEI	Idazkariordea, Kudeatzailea

V.3. BATZORDEEN ZERRENDAK ¹

IKER SAILA

Sailburua: Henrike Knörr

I. HIZTEGIGINTZA

I.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak egitasmoa

Zuzendaria: Ibon Sarasola

Kideak: Gabriel Fraile, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Ainhoa Otamendi.

I.2. Hiztegi Batuko lantaldea

Arduraduna: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Irene Arrarats, Luis Baraiazarra, Jean-Louis Davant, Antton Gurrutxaga, Koro Navarro, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia, Xarles Videgain.

I.3. Hiztegi Batua (2. itzulua) batzordea

Burua: Pello Salaburu

Idazkaria: Jose Antonio Aduriz

Aholkulariak: Miren Azkarate, Xabier Kintana.

I.4. Zientzia eta teknika hiztegia biltzeko egitasmoa

Zuzendaria: Xabier Kintana

Idazkaria: Iñaki Irazabalbeitia

Kideak: Andres Alberdi, Xabier Alberdi, Kepa Altonaga, Antton Gurrutxaga.

II. GRAMATIKA

II.1. Gramatika batzordea

Burua: Pello Salaburu

Idazkaria: Jesus Mari Makatzaga

Kideak: Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Pierre Charritton, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Nora Iriarte, Alan King, Itziar Laka, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Paskual Rekalde, Karmele Rotaetxe.

¹ Izendapen hauek (2007-V-31 eta 2007-VI-29an onartuak) 2007rako eta 2008rako dira.

II.2. Euskal Gramatika Orokorra egitasmoa

Zuzendaria: Pello Salaburu

Idazkaria: Jesus Mari Makatzaga

Kideak: Patxi Goenaga, Itziar Laka, Beñat Oihartzabal, Paskual Rekalde.

Teknikaria: Haritz Monreal

III. DIALEKTOLOGIA

III.1. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa

Zuzendaria: Adolfo Arejita

Arduradunak: Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain

Teknikariak: Iñaki Camino, Izaskun Etxebeste, Koro Seguroa.

Aholkulariak: Isaak Atutxa, Ana Maria Etxaide, Jose Maria Etxebarria.

III.2. Ahozko tradizioa biltzeko egitasmoa

Zuzendaria: Adolfo Arejita

IV. ONOMASTIKA

IV.1. Onomastika batzordea

Burua: Andres Iñigo

Idazkaria: Mikel Gorrotxategi

Kideak: Patxi Galé, Imanol Goikoetxea, Roberto Gonzalez de Viñaspre, Hector Iglesias, Henrike Knörr, Iratxe Lasa, Jose Luis Lizundia, Elena Martínez de Madina, Felix Mugurutza, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Zaratiegi.

Aholkulariak: Jean-Louis Davant, Jose Antonio González Salazar, Jean-Baptiste Orpustan, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Bernadette Soulé, Amaia Usabiaga, Luis Mari Zaldua.

IV.2. Exonomastika batzordea

Burua: Jose Luis Lizundia

Idazkaria: Alfontso Mujika

Kideak: Mikel Gorrotxategi, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana.

Aholkulariak: Irene Arrarats, Gidor Bilbao, Patxi Galé, Asier Larrinaga.

IV.3. Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa

Zuzendaria: Andres Iñigo

Teknikaria: Patxi Galé

V. LITERATURA

V.1. Herri Literatura batzordea

Burua: Pello Esnal

Idazkaria: Joxe Ramon Zubimendi

Kideak: Antton Aranburu, Adolfo Arejita, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Jabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Xabier Perez “Euzkitze”, Patziku Perurena, Antonio Zavala.

V.2. Literatura Ikerketa batzordea

Burua: Jean Haritschelhar

Idazkaria: Lourdes Otaegi

Kideak: Iñaki Aldekoa, Ur Apalategi, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Sebastian Gartzia Trujillo, Jon Kortazar, Maria Jose Olaziregi, Karlos Otegi, Txomin Peillen, Iratxe Retolaza, Ana Toledo, Patri Urkizu.

VI. JAGON SAILA

Jagon sailburua: Andres Iñigo

VI.1. Corpus batzordea

Burua: Andres Urrutia

Idazkaria: Paskual Rekalde

Kideak: Dionisio Amundarain, Joseba Butron, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Andres Iñigo, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren, Joxe Ramon Zubimendi.

VI.2. Euskalkien lantaldea

Arduraduna: Paskual Rekalde

Kideak: Kaxildo Alkorta, Jon Aurre, Jose Luis Erdozia, Pello Esnal, Nagore Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Maialen Hiribarren, Patxi Iñigo, Manu Ormazabal, Joxe Ramon Zubimendi.

VI.3. Sustapen batzordea

Burua: Andres Iñigo

Idazkaria: Erramun Osa

Kideak: Arabako ordezkaria, Gipuzkoako ordezkaria, Iparraldeko ordezkaria, Nafarroako ordezkaria, Sagrario Aleman, Erramun Baxok, Jean-Baptiste

Coyos, Aingeru Epaltza, Patxi Juaristi, Santiago Larrazabal, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Andres Urrutia.

Aholkulariak: Xabier Erize, Jose Luis Lizundia, Karmele Rotaetxe.

VI.4. Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala)

Zuzendaria: Joseba Intxausti

Aholkularia: Mikel Zalbide

* * *

VII. EGITURAZKO BATZORDEAK

VII.1. Argitalpen batzordea

Burua: Euskaltzainburua: Andres Urrutia

Idazkaria: Argitalpen eragilea: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak: Adolfo Arejita, Diruzaina: Jose Luis Lizundia;

Euskaltzainburuordea: Beñat Oihartzabal; Idazkaria: Xabier Kintana; Iker sailburua: Henrike Knörr; Jagon sailburua: Andres Iñigo; Pello Salaburu.

Aholkulariak: Idazkariordea: Pello Telleria; Kudeatzailea: Juan Jose Zearreta.

VII.2. Azkue Biblioteka batzordea

Burua: Jose Antonio Arana Martija, bibliotekaria

Idazkaria: Prudentzio Gartzia, zuzendaria

Kideak: Kepa Altonaga, Gidor Bilbao, Sebastian Gartzia Trujillo, Joseba Lakarra, Gerardo Luzuriaga.

Aholkulariak: Joseba Agirreazkuenaga, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Agurtzane Juanena, Henrike Knörr.

VII.3. Ekonomia – Fundazioa batzordea

Burua: Jose Luis Lizundia, diruzaina

Idazkaria: Juan Jose Zearreta, kudeatzailea

Kideak: Xabier Erdozia, Sebastian Gartzia Trujillo, Juan Luis Laskurain, Jose Maria Makua Goienetxe, Abel Muniategi, Javier Saizar, Andres Urrutia.

VII.4. Informazio eta Komunikazioaren teknologiak batzordea (IKT)

Burua: Euskaltzainburua

Idazkaria: Euskaltzaindiaren informatikaria

Arduraduna: Andoni Sagarna

Kideak: Diruzaina, Kudeatzailea

Aholkulariak: Batzordeburuak, egitasmo-zuzendariak eta lan-taldeen arduradunak, gaiaren arabera; Xabier Artola, Miriam Urkia.

VIII. XVI. BILTZARRA

VIII.1. XVI. Biltzarraren batzorde Akademiko suntsikorra

Burua: Andres Urrutia (Deustuko Unibertsitatea)

Idazkaria: Xabier Kintana (EHU – UPV)

Kideak: Henrike Knörr (EHU – UPV), Joseba Lakarra (EHU – UPV), Aurelia Arkotxa (CNRS eta Baiona – Bordeleko Unibertsitateak), Txomin Peillen (Paue eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko irakasle emeritua), Patxi Salaberri (NUP).

VIII.2. XVI. Biltzarraren Antolakizun batzorde suntsikorra

Burua: Jose Luis Lizundia, diruzaina

Idazkaria: Juan Jose Zearreta, kudeatzailea

Kideak: Sagrario Aleman, Nafarroako euskaltzaina; Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria; Amaia Okariz, Prentsa eta Komunikazio arduraduna; Pello Telleria, idazkariordea.

V.4. HELBIDEAK

EGOITZA

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e: info@euskaltzaindia.net
Http://www.euskaltzaindia.net
Kudeatzailea: Juan Jose Zearreta
Idazkariordea: Pello Telleria

PRENTSA ZERBITZUA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: prentsa@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Amaia Okariz

ARGITALPEN ZERBITZUA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: rbadiola@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Ricardo Badiola Uriarte

ARGITALPEN SALMENTA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Gordailua:
 Bilbo-Donostia errepidea, z.g. - 4,5 km
 Kukullaga-SAGA eraikuntza, 1. solairua
 48450 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf.: (00-34) 94 440 62 58
Posta e.: jartza@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Jon Artza

AZKUE BIBLIOTEKA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 27 45
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: azkuebib@euskaltzaindia.net
Zuzendaria: Pruden Gartzia

ONOMASTIKA ZERBITZUA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: mikelonoma@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Mikel Gorrotxategi

ORDEZKARITZAK

ARABA

Alava Jenerala, 5
01005 VITORIA / GASTEIZ
Telf.: (00-34) 945 23 36 48
Faxa: (00-34) 945 23 39 40
Posta e.: gasteizordez@euskaltzaindia.net
Ordezkaria: Henrike Knörr: ordezkariordea: Manu Ruiz Urrestarazu

GIPUZKOA

Hernani, 15
20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Telf. : (00-34) 943 42 80 50
Faxa: (00-34) 943 42 83 65
Posta e.: donostiaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkaria: Ana Toledo

NAFARROA

Conde Oliveto, 2, 2. eskuin
31002 IRUÑEA / PAMPLONA
Telf. : (00-34) 948 22 34 71
Faxa: (00-34) 948 21 07 13
Posta e.: nafordez@euskaltzaindia.net
Ordezkaria: Andres Iñigo

IPARRALDEA

Paul Bert plaza, Gaztelu-Berria, 1. solairua
64100 BAIONA / BAYONNE
Telf. : (00 33) (0) 559 25 64 26
Faxa: (00 33) (0) 559 59 45 59
Posta e.: baionaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkaria: Beñat Oihartzabal
Baionako bulego arduraduna: Pierre Charritton